

ARCO
ASTEKO GAIA: HIZTEGI BATUA, EUSKARA BATUA ERAIKITZEN

Arrasate

P R E S S

2000.eko
maiatzaren 26a
497. zenb.

Asmoz beteta

Felix eta Alberto Iñurrategi



IKUSPEGIA: MIKEL IRIZAR • EUREN IKUSPUNTUTIK: BEÑAT ARZADUN
ESKOLA KIROLA: AZKEN JAIA • KULTURA ELKARRIZKETA: MAIATZA DANTZAN

Amaia Antzokian




Maiatzak 27

20:00 etan

Sarrera: 1.000 pta.

Gazte txartelarekin: 800 pta.



COMPANIA ARRIERITOS

Todos los **gatos**
son **pardos**

Maiatza Dantzan



ARRASATEKO UDALA



Kultura Saila ■

Gipuzkoako Foru Aldundia

Goiena lorean

Irati bateko esataria ari zitzaidan Goienari buruz elkarrizketa egiten eta galdera zuzena bota zidan: Noizko emaitzak? Eta nik, data zehatzik eman ezin baina ihes egin nahi ez, udaberriko lorekin batera Goienak lorearen bat emango zuela erantzun nion.

Joan den astean metafora argazki bihurtu zen.

Goiena Telebistaren lehen txanpa irudikatze, aurreko azala prestatzen jardun zuten Eneko eta Maddi lankideak, bata loreari argazkia atera eta besteak lore erdian GoiTBren logoa ezartzen.

Aste honetan, berriz, argazkia errealitate bihurtzen hasi da: GoiTBren lehen adarra ari da bidea egiten, Leintz eta Aramaio aldean. Kasu honetan, gainera, bidea egitearena ez da metafora. Aspaldi-



Mikel Irizar

ko Jonek prestatu duen furgonetari esker, albistegi-tako taldea herriz herri eta bidez bide ibili da, aspaldiko Joxeren gidaritzapean. Bitartean, Otorako emisio zentroan, Oihane, Monika, Edu, Mikel, Iban eta gainontzeoak.

Gainera, telebistako lan taldeak lagun izango ditu, besteak beste, Iratxe eta Mirari Aretxabaletan,

Marijo, Ubane, Leire, Aitziber eta Alazne Arrasaten, beste Edu, Iñaki eta Aintzane Bergaran. Eta bidea eginaz bidelagun bihurtuko direnak ere bai, Oñati, Antzuola, Elgeta, Eskoriatza, eta abarretakoak.

Uda bitartekoaldi hau oso egokia izango da GoiTBrentzat, frogak egin eta moldeak finkatzeko. Herrien arteko elkarlanak eman ditzakeen zailtasun teknikoak eta bestelakoak ezagutu ahal izango dira, eta gainditzeko bideak

aurkitu. Horrela, uda ondoren Debagoiena osora hedatu eta txanpa indartsua emateko moduan legoke GoiTB.

Eta udaberria joan arren, Goienak jarraituko du loreak ematen hurrengo hilabeteetan. Uda aurretik legez eratu da, eta erakundeekin hitzarmenak lotu nahi lituzke. Dena ondo, udazkenean prentsan abiatuko da, eta telematikarako prestatu. Beti ere, eskualdea goiko muga izango da, eta herrian optimizatu daitekeena herrian egingo da.

Bestalde, Goiena eskualderako sortu da, baina ez du irla izan nahi. Euskarazko beste hedabideekin, tokikoak nahiz nazionalak, elkarlana bultzatu nahi du, sinergia eta ekonomien bila. Hedabide nazionalen eskualdeko korrespontsala izateko prest dago, eta horretarako harremanak hasi ditu. Era berean, eskualderako egiten duen produkzioa sare nazional eta nazioartekoetan jarriko luke, horietan euskararen eta euskal gizartearen presentzia egokia izan dadin laguntzeko.

Maiatzean, lorailan, Goienak eman du lorea. Uztailean, uzta? ■

Euskararen eta euskal gizartearen presentzia egokia izan dadin lagunduko du

“33 eta 31 urterekin oso gorputzaldi onean gaude eta helburu asko ditugu oraindik”.

Felix eta Alberto Iñurrategi

3.000.000

pta eman dizkio
Gipuzkoako Diputazioak
LKSri San Prudentzio eta
Epele bideko lanen
proiektua egiteko.

Besteak beste, errepidea zabaldu eta San Prudentzio-ko biribila egitea aurreikus-ten da. LKSk hilabete dauka lan horiek egiteko proiektua idazteko.

AURKIBIDEA

- Ikuspegia **3**
- Zaharrago eta zuhurrago **20**
- **Goiena lorean**
- Eskola kirola **21**
- Inkesta **5**
- Zaldibar **22/23**
- Euren ikuspuntutik **6**
- **Elkartasun Eguna**
- Kirolak jokoan **24/25**
- Asteko hitzorduak **8/9**
- **Aurrez aurre 26/27**
- **Iñurrategi anaiak**
- Astearren errepasoa **10**
- Kulturaren txokoa **28/31**
- Orain eta hemen **11/13**
- **Ikusi eta entzun 32/33**
- Txutxumutxuak **14/15**
- **Dena auto 34/35**
- Asteko gaia **16/19**
- **Azoka plaza 36/37**
- **Hiztegi Batuaren lehen zatia amaiturik dago**
- Foto zaharra **38**

ARKO
ARRASATE
KOMUNIKABIDEAK

ARRASATE PRESS

Argitaratzailea: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Olatora kalea, 31 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa) (Tel.: 943 71 25 11. Faxa: 943 71 23 89 E-mail: arrasatepress@euskalnet.net

Laguntzaileak: Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Marijo Deogracias. **Kazetariak:** Ubane Madera, Maider Osa, Leire Kortabarria eta Gorka Etxabe. **Publikatzailea:** Nerea Zallo, Arantza Lagunilla, Arantza Arriola. (Tel.: 943 71 23 91/ 943 71 23 92). **Zuzentzailea:** Sergio Azkarate. **Administrazioa:** Agurtzane Gainzarain, Ane Bereziar (Tel.: 943 71 23 90) **Diseinua:** Maddi Trubuelo. **Asteburuetako berriemaileak:** Mikel Irizar eta Xabier Urzelai. **Kolaboratzaileak:** Mikel Irizar, Karmele Perez, Nekane San Migel, Iker Ezpeleta eta Udaleko Gaztrea Salla. **Banaketa arduraduna:** Naiara Odriozola-AED. (Tel.: 943 71 12 28). © ARRASATE PRESS. **Tirada:** 6.500. **Lege-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Franko kontertatua. **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oñati).

ARRASATE PRESSEK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanetan eta intzient erantzunik.

ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

Azala: Felix eta Alberto Iñurrategi.

BEHARREZKO TELEFONOAK

Eritetxeak

Arrasateko Eskualde-Ospit. 943 03 53 00
Iguatorialdea 943 71 26 91
Santa Agedako Ospitalea
(gizonak) 943 79 39 00
(emakumeak) 943 79 44 11
Buru osasunerako zentrua 943 79 90 11

Larrialdiak

SOS Deiak 112
Gurutze Gorria 943 76 55 76
DYA 943 78 71 57

Anbulatorioak

Guardiako medikua 943 46 11 11
Arrasate
• Txanda hartzeko: medikuntza
orokorra eta pediatria 943 03 52 50
• Espezialitateak 943 03 53 11
• Ikuskatzaileak 943 03 52 52
• Kanpoko kontsultak 943 03 53 11
Aretxabaleta 943 79 74 58
Aramaio 945 44 53 40

Anbulantziak

Gipuzkoako ambulanziazak 943 45 87 44

Udaltzaingoa

Onati 943 78 04 11
Bergara 943 77 91 06
Arrasate 943 79 14 39
Aretxabaleta 943 79 10 52
Eskoriatza 943 71 44 07

Ertzaintza

Arrasate 943 79 71 99

Suhiltzaileak

Udal taldea 943 79 09 00
Udal taldeko suhiltzaile burua 943 79 20 72
Zubillagako Eskualde-Parkea ... 088

Matxurak

Urak (udal zerbitzua) 943 79 09 00
Argindarra (Iberduero) 943 12 01 62
Gasa 900 40 05 23
..... 943 79 78 44
..... 943 79 76 78

Garraioak

Taxiak 943 79 12 22
PESA 902 10 12 10

Hirugarren adinekoentzako zentruak

Iturbide Egoitza 943 79 72 11
Abaroa jubilatuen egoitza 943 79 81 57

Monterron liburutegia

Monterron 943 77 01 05

Irratia

Arrasate Irratia 943 79 58 77

GAU ETA EGUNEKO FARMAZIAK

Ostirala, 26

- Ruiz, Maalako Errabala

Larunbata, 27

- Morales, San Andres

Igandea, 28

- Azkoaga, Ferrerías

Astelehena, 29

- Azkoaga, Iturriotz

Asteartea, 30

- Korkuera, Musakola

Asteazkena, 31

- Irizar, Erguin

Osteguna, 1

- Ametzua, Santa Marina

EUSKARAZ IKASTEKO ESKUBIDEA

Euskaldunok euskaraz ikasi, lan egin eta bizitzeko eskubidea daukagu eta hori ezin du inork ukatu. Haurtzarotik euskaraz ikasten ibili eta gero, bat-batean ikasketa mailaz aldatzean ezin da gurea ez den beste hizkuntza bat ezarri.

Egun, ezin da onartu Euskal Herrian, Hezkuntza Sailaren eta ikastetxe ezberdinen joera eta jarrerengatik, ikasketak gurea ez den hizkuntza baten burutzerara behartzea.

Kanpotik datozen ikasleak, edo A erduan matrikulatzen diren ikasle gutxi batzuk kanpoan gera ez daitezten, edota irakasleak edo materiala prestatu gabe dagoela aitazkitzat hartuz, erdal erdua ezartzen dute. Ondorioz, euskaldunok beti burumakur, hezkuntza ibilbide osoan erabili ez den hizkuntza baten ikas-tera behartzen gaituzte.

Ezin da ulertu eta onartu euskaldundu behar den gizar-tea, beste hizkuntz batean ikasi duten teknikariak sortuz lortuko denik, lanerako erdal hizkuntzak erabiltzen irakasten bada.

Honen guztiaren aurrean gure desadostasuna adierazteko, ekainaren 1ean sinadura bilketa bat egingo dugu herriko ikastetxe guztietan eta baita AED, AEK, EHE... eta beste hainbat tokitan ere, gero Hezkuntza Sailari, Udalari, ikastetxei eta abarri helarazteko.

Arrasateko Euskal Irakas-kuntzaren aldeko ekimena

EUSKAL PRESOEN ESKUBIDEEN ALDEKO MANIFESTUA

Euskal preso en taldeak Ebidalitako proposamena-ri erantzunez, maiatzaren 25ean antolatutako mobilizazioetan parte hartzeko erabakia hartu dugu. Mobilizazio hauetan "Euskalgintza euskal preso en eskubideen alde" leloa izango duen pankartaren ostean bilduko gara euskalgintzan jarduten dugun langileok. Leloak eskubideak eskatzen ditu eta garrantzitsuenak hauek dira:

- Giza eskubideen errespetua bermatzea, are gehiago beraien atxiloketa egoera kontuan izanik.
- 3/4ak beteta dituztenak etxeratuak izan daitezela.
- Euskal preso guztiak Euskal Herriratuak izatea.
- Gaixotasun sendaezinak dituztenak etxera ekartzea.

Euskalgintzako langile garen aldetik, azpimarratu nahi genuke gaur egungo egoeran beraien hizkuntza eskubideak ere ez direla errespetatzen. Euskaldun guztiok euskaraz bizitzeko eskubidea aldarrikatu nahi dugu.

Arrasaten
2000ko maiatzaren 24an

*Arrasateko
euskalgintzako langileak*

Sili Sili
Martxa eta estilo handiko arropa
Iturriotz, 9 • ARRASATE
Tel.: 943 79 81 82

M
MEMESA
Industria hornidurak
Tel. 943 71 24 25

UGARAN
jatetxea
Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

Gustura zaude zure mediku espezialistarekin?

Osakidetzaren inkestak dienez erabiltzaileen % 97 gustura dago.



Tere Etxebarria
(57 urte)
Etxekoandrea

Orain arte, oso ondo. Oso zerbitzu ona ematen dute.



Marina Sanchez
(92 urte)
Erretiratua

Bai, pozik nago. Nire espezialista neska da eta oso konforme nabil berarekin.



Jose Ramon Nafarrate
(40 urte)
Langilea

Bai, pozik nabil.



Heliodoro Espada
(32 urte)
Langabea

Bai, gustura nago nire espezialistarekin.



Itziar Etxebarria
(44 urte)
Langilea

Ez naiz askotan joaten, baina orain dela gutxi zirujauak atenditu ninduen eta oso gustura geratu nintzen.



Virginio Hernandez de Dios
(70 urte)
Erretiratua

Familia medikuarekin bai, baina espezialistarekin ez pentsa oso konforme nagoenik.



Arturo Lasa
(40 urte)
Langilea

Gutxitan joan naiz espezialistarengana, baina tokatu izan zaidanean, gustura geratu naiz.



Mari Cruz Garcia
(41 urte)
Etxekoandrea

Bai familia medikuarekin eta bai espezialistarekin ere konforme nago.


Focus TDdi

Injekzio zuzena
1.975.000 pta.

Prever plana
eta deskontuak barne

MUGARRI

943 79 07 44



TXIRRITA
Taberna

Garagardo ona
Giro hobea

Gesalibar auzoa
Tel.: 943 79 10 35

AL

ILE APAINDEGIA

Alfonso X jakintsua, 1 behea
(Grupo San Juan)
Tel.: 943 79 79 65

USTEAK USTE

Eurenak direlako

Euskal presoen eskubideen aldeko mobilizazio astean ekintza ugari egin dira. Gainera, aurreko greba orokorrak izan zuen erantzuna ikusirik, oraingoan beste hainbat ekimen egin da grebari bestelako babesa emateko. Etxe honetako langileok ere bi orduko lanuztea egin genuen ostegunean eta eguerdiko kale agerraldiarekin bat egin genuen "Euskalgintza euskal presoen eskubideen alde" leloarekin.

Larunbatean Donostian ere kale agerraldi nazionala egingo da eskubide horien alde; EAJK ere talde bat eratu berri du, besteak beste, euskal presoen eskubideen alde lan egiteko. Baina, bide batez, ez zen asteazkenean Arrasateko plazan egon, dirudienez, EBBren aginduz.

Euskal presoen eskubideak zeintzuk diren argi geratu da behin eta berriz, eta horiek errespeta ditzaten ere behin eta berriz eskatu dugun arren, ez dugu orain arte ezer lortu. Dena dela, hainbat talde gauza bera eskatzen ibiltzea baino, guztiok elkarrekin ez genuke gehiago lortuko? Azken batean, euren eskubideak dira.

Marijo Deogracias



Elkartasun Eguna

* Beñat Arzadun

Egunero entzuten ditugu globalizazioa bezalako hitzak. Eta ez dira hitz hutsalak: oporretara ia ezin urrunago joaten gara, munduko beste puntatik ekarritako kafea edaten dugu, guk egindako tresnak ere beste herrialdeetan saltzen ditugu... etengabe gaude beste herrialdeetako jendearekin harremanetan, oharkabean askotan, zeharka gehienetan, baina harremanetan azken batean.

Baina mundua ez da bidai agentzietako erakuslehoetako argazki eder edota irudi ederretako dokumentaletan agertzen zaizkigun beste herrialdeetako bitxikerietara mugatzen. Errealitatea nagusiki munduko 6.000 milioi emakume eta gizonok osatzen dugu, eta milioika pertsona askoren biziak telebistan agertzeko bezain politak ez diren atal asko ditu. Gaixotasuna, gosea, esplotazioa, pobrezia...

Munduan badira oso gaizki doazen makina bat gauza: Munduan 6.000 milioi pertsona gara,

erdiak egunean 300 pezeta baina gutxiagorekin bizi dira eta horien erdiak egunean 150 pezeta ere ez dituzte. Ia 900 milioi pertsona goseak daude, 1.300 milioi pertsona inguru edateko ur garbirik gabe...

Eta ezin esan dugu guk horrekin zerikusirik ez dugunik. Gaur egun ukatu ezin dugun gauza da gure ekintza eta erabakien eragina urrunera luzatzen dela. Nahi edo ez, eragina dugu munduko biztanle askoren bizian eta askotan eragin hori ez dirudi oso positibo edo bidezkoa. Adibidez, gutako edonork indiar batek baino 30 aldiz inguru

“
Besoak gurutzatuta
deus gutxi egin
izan du inoiz
inork
”

kutsadura gehiago sortzen du eta kutsadura horren zati eder bat munduan barrena barreiatzen dugu (airearen kutsadura kasu), ez dugu guk bakarrik jasaten.

Eta nik zer arraio egin dezaket! marmar egingo du bat edo bestek. Ez da gauza erraza horri erantzutea, baina besoak gurutzatuta deus gutxi egin izan du inoiz inork. Lehen pauso bat errealitateari bizkarra ez ematea izan daiteke. Arrasatetik, Deba Goienetik harantzago mundu zabal bat badela ohartu behar dugu. Gure bailaratik harantzago ez daude esportaziorako merkatuak eta oporretarako hondartzak bakarrik. Batez ere jende piloia dago, euren poz eta tristurekin, ahalmen eta gabezi, kultura aberats, usadio zahar eta hobetzeko grinarekin.

Horregatik antolatuta dugu larunbat honetarako Arrasateko Garapenerako Gobernu Kanpoko Erakunde guztion artean Arrasateko 2. Elkartasun Eguna. Eta izenburu gisa "Elkar Ezagutzuz" ipini diogu. Izan ere, gu bezalako beste 6.000 milioi pertsona daude munduan eta ezin diegu besterik gabe bizkarra eman.

* Arrasateko Garapenerako GKEko kidea

P Pando Errotuloak
Gipuzkoa etorbidea 6 (Legarre Pabiloia)
Tel.-Fax: 943 79 79 70

- Argidun kartelak
- Tbilgailuak
- Stand-ak
- Itsasgarriak
- Biniloa
- Señalizazioak
- Lonak
- Erliebedun hizkiak

GORKA
ILEAPAINDEGIA
SOLARIUMA
Ferrerías, 35 ARRASATE
Tel.: 943 77 13 78

hildakoak

- Francisco Arana Argarate, maiatzaren 18an, 92 urte.
- Juliana Vicente Martin, maiatzaren 20an, 87 urte.

ezkontzak

- Gorka Ochoa Aranzabal eta Sara Izaguirre Ramirez de Alda, maiatzaren 20an.

jaiotzak

- Ander Gomez Etxebarria, maiatzaren 17an.
- Jokin Navais Lasaga, maiatzaren 18an.
- Markel Mendizabal Aguirre, maiatzaren 20an.

eskelak

**Eskelak, esker onak
eta urteurrenak
jartzeko tartea**


**Azken eguna:
asteazken eguerdira arte**

Tel.: 943 71 23 91

mezak


Eguraldiaren aurreikuspena

Donostiako Metereologia Zentrua



OSTIRALA 26

Goi lainoak, egu-
nean zeharugarituz
joango direnak.
Euria egingo du
arratsaldean. Giroa
epeldu egingo da
eta haizeak ipar-
raldetik joko du.



LARUNBATA 27

Oso lainotua egun
osoan. Zirimiria
egingo du, eta ten-
peraturak ere behe-
rantz egingo du.
Haizeak iparralde-
tik joko du, baina
ahulki.



IGANDEA 28

Goizean behelai-
noa. Hodeiak
nagusi, baina
oskarbi tarteenkin.
Temperaturak gora
joko du.

San Joan parrokia

- Larunbata**
19:00 (elebiduna)
- Igandea**
09:00 (erdaraz)
11:00 meza nagusia (euskaraz)
12:30 (elebiduna)

San Frantzisko eliza

- Larunbata**
19:00 (elebiduna)
- Igandea**
09:00 (euskaraz)
10:00 (erdaraz)
11:00 meza nagusia (euskaraz)
12:30 (erdaraz)
19:00 (erdaraz)

Uribarri parrokia

- Larunbata**
19:00 (elebiduna)
- Igandea**
11:30 (euskaraz)
12:30 (erdaraz)

San Andres eliza

- Larunbata**
19:00 (elebiduna)
- Igandea**
10:00 (elebiduna)
11:00 (euskaraz)
12:00 (erdaraz)
13:00 (erdaraz)

Santa Teresa eliza

- Larunbata**
19:00 (elebiduna)
- Igandea**
10:30 (erdaraz)
11:30 San Isidron (euskaraz)
12:30 (erdaraz)

Santamañako eliza

- Jaiegun bezpera eta larunbata**
19:00 (erdaraz)
- Igandea**
12:00 (erdaraz)

- X Ezkontzak
- X Bataioak
- X Jaunartzeak
- X Enpresa bazkariak eta lagunartekoak



P A R K I N A E T A T E R R A Z A

BASTER-ALDE

J A T E T X E A

Galartza auzoa • ARETXABALETA
Tel.: 943 79 24 58

R.M. ZUAZOLA-LARRAÑA
Oniatik b.h. institutua

2000-2001 Eskaintza

HEZIKETA ZIKLOAK ("D" EREDUA)

- **Erdi Maila:**
 - Mekanizazioa
 - Landa eta Ingurunean Gorputz eta Kirol Ekintzak Gidatzea
- **Goi Mailakoa:**
 - Gizarte eta Kultura animazioa

IZENA EMATEKO EPEA:
Ekainaren 1etik 12ra
TOKIA:
Larraña Ikastetxea
Tel.: 943 78 21 50
Faxa: 943 78 19 08

26

ostirala

■ ZINEMA

Colgadas. Alai zineman: 19:00 - 22:00.

■ MENDI ASTEA

Besaideren eskutik Xabier Rozas, Broad Peak espedi-zioko kidea, arituko da Mon-terronen. 19:00.

■ LIBURU AURKEZPENA

"Las Memorias de Esteban de Garibay y Zamalloa" liburua aurkeztuko da Udale-txean: 19:00.

■ JAM ARETOA

Misery Loves Co., Kill II This eta Earthtone 9 taldeek kontzertua eskainiko dute Jam aretoan: 22:00.

27

larunbata

■ ZINEMA

28 días. Alai zineman: 17:00 - 19:30 - 22:00.

■ BIZIKLETA IRTEERA

Besaideren mendi astea dela eta mendi bizikleta irte-era egingo da. Irteera 09:00etan Musakolako kirol-degitik.

■ ERRETIRATUEN EGUNA

11:00etatik aurrera herri-ko erretiratuek omenaldi jaia izango dute, 14:00etan bazkari erraldoia izango da Musako-lan.

■ FLAMENKOA AMAIAN

Arrieritos konpainiak "Todos los Gatos son Pardos" flamenko ekitaldia eskainiko du. Amaia Antzokian: 20:00.

■ AL-ANDALUS

Al-Andalusen Kultura Astea amaitzeko, flamenko-arratsaldea, 19:00etan, eta mintzaldi elkarrizketa, 23:00etan.

■ KONTZERTUA JAMEN

Peter & the Test Tube Babies, Segismundo Toxicomano eta Des-Control talde-en kontzertua izango da Ber-garako Jamen: 22:00.

■ KONTZERTUA ATERPEN

Arrasateko, runba doinuak jotzen dituen Algibe taldea gaueko 24:00ean Aterpe taber-nan izango da.

28

igandea

■ ZINEMA

28 días. Alai zineman: 17:00 - 19:30 - 22:00.

■ BELAGUARA IRTEERA

Besaidek mendi asteare-kin amaitzeko Belagoako bai-larara mendei irteera antola-tu du. Larunbatean abiatuko dira eta igande Lakartxelara joango dira.

30

asteartea

■ ZINEMA

28 días: Alai zineman: 19:00 - 21:30.

31

azteazkena

■ HECHOS CONTRA EL DECORO

Hechos contra el Decoro taldearen kontzertua izango da 21:00etan, Oñatiko Gazte-luan. Disko berria aurkeztu-ko dute. Sarrera 500 pezetan.

29


astelehena

■ ZINEMA

28 días. Alai zineman: 19:00 - 21:30.

■ HARROBIEN AURKA

Larunbatean eguerdiko 12:00etan protesta ekitaldia egingo da Kanpazarko harrobian. Ekitaldia Arrasateko harrobien egoeraren berri emateko informazio kanpainaren barruan antolatu dute.



II. Harreman Eguna

Arrasateko Garapenerako Gobernu Kanpoko Erakundeek (Harremamn, Komite Internazionalistak, Mugarik Gabeko Ingeniariak, Esku Batuak, Serso eta Caritas) II. Harreman Eguna antolatu dute zapatarako. Seber Altube plazan izango dira ekintzak, 11:00etatik 13:00etara eta 17:30etik 19:30era.

Gaztetxoek 11:00etatik 13:00etara eta 17:30etik 19:30etara, hainbat herritako jolasetan aritzeko aukera izango dute: Txinako Mikado, Tangram eta Go-Bang jokoak, Javako Surakarta, Afrika mendebaldeko Yotea eta Waria, garai batea, Egiptoko faraoien joku eta gaur egun Asia eta Afrikako eremu zabaletan gozatzen duten jolasa.

Bidezko Merkataritzako produktuak ikusi eta erosteko aukera ere egongo da eta baita tabernan Bidezko Merkataritzako kafea dastatzeko ere.

Hirugarren Munduko herrialdeen erakusketa ere jarriko dute eta Intermon, Alboan, Hirugarren Mundua eta Bakea eta Unicef GKEak ere gonbidatu dituzte.

■ ARRASATE MUSIKALEN IZEN EMATEA

Zabalik dago, datorren ekainaren 20a arte, Arrasate Musikalen izena emateko epea. Musika Eskolako idazkaritzan: 17:00etatik 20:00etara

■ 47KO KINTOAK

47ko kintoek ekainaren 3an izango dute aurtengo bilera. San Joanen meza izango dute, 12:00etan, eta Udalpe elkartearen bazkaria, 14:30ean. Izen ematea maiatzaren 30a baino lehen. Arduraduna: Zipriano Lafuente, 943 79 52 59.

■ ZARAGOZARA TXANGOIA

Ekainaren 3an eta 4an Zaragoza-Calatayud-Monasterio de Piedra ibilbidea egingo dute Ekin Emakume elkarteak. Hango herri eta paisaia ederrak ikusi eta parke naturalak ezagutuko dituzte. Izen ematea eta argibideak: Ekinen egoitzan, 15:00etatik 19:00etara, maiatzaren 30a baino lehen.

■ JAI KOMISIOAREN BILERA

Sanjoan jaiak antolatzeke, koadrilen komisioren bilera izango da martitzenean, 19:00etan, SUDCeke lokalean (Pablo Uranga, 4). Antolatzaileek ordezkariz guztiak parte hartzerantz animatzen dituzte, jaiak laster dira-eta.

■ ODOL EMAILEAK

Arabako Odol Emaileen Elkarte Arrasaten izango da odol biltzen maiatzaren 29tik 31ra bitartean, eta ekainaren 5, 6, 12 eta 13an. Anbulatorioan izango da odol ematea, 16:00etatik 20:00etara.

■ IKUSKIZUNA MUSAKOLAN

Arruenako zelaian egunero 18:30 eta 20:30etan eta igandean 12:00, 18:30 eta 20:30etan animala ikuskizuna izango da, egunero, domekara arte. 18:30ean izango dira saioak.

ARRASATEKO KOMIKI EZ SEXISTEN III. LEHIAKETA

Lanak aurkezteko epea 2000ko uztailaren 21a

SARIAK:

- Lehen saria: 90.000 PTA
- Aukera berdintasuna lantzen duena: 60.000 PTA
- Emakume egilearentzat: 60.000 PTA
- Gazte saria: 30.000 PTA
- Euskara Saria: 30.000 (metakorra)



ARRASATEKO UDALA

Argibideak:

Emakume Saila ■

Tel.: 943 79 41 39

DERMATOLOGIA KONTSULTA

*Concepcion Tamayo Dk.
Jesus Sampedro Madina Dk.*

AZALEKO GAIXOTASUNAK

(Lagun-Aro, IQUIMESA-Adeslas, Diputazioa, Asisa, Sanitas eta Ipresa aseguruak hartzen ditugu, baita partikularrek ere).

FOTODEPILAZIOA (Laserra)

- Medikua kontrolatua
- Emakumezko eta gizonezkoentzat.
- Ile normala eta hormona arazoan ondoriozkoa tratatzeko.

Kontsulta informatiboa doan

Maalako Errabala, 23/2-A
Tel.: 943 77 05 57
Arrasate-Mondragon

Atzeko Kalea, 6 behe
Tel.: 943 71 61 82
Oñati

astea bi hitzetan

■ Mobilizaziorik ez

OMICOnpresako langileek momentuz mobilizaziorik ez egitea erabaki zuten joan den astean. Aurreko alean kontatu genizuen bezala, bertako langile bati 20 eguneko zigorra jarri zion enpresako zuzendaritzak bi arrazoiengatik: beste langile batekin ika-mika izateagatik eta produktzioa jaisteagatik. Hala ere, sindikatuek zuzendaritzaren erabakiak ez duela pisuzko arrazoirik adierazi zuten eta joan den asteazkenean lanuztea egin zuten enpresan. Ostiralean, adiskidetze ekitaldia izan zuten Donostian kaleratutako langileak eta zuzendaritzak.

Jakin dugunez, ordea, ez zen inolako trataturik egon eta epaiketa egingo da. Gutxienez hilabete pasako da orduara arte. Hori dela eta, OMICOnko langileek bitartean mobilizazio gehiago ez egitea erabaki dute.

■ Taxi lizentziak

Arrasateko Udalak bi taxi gidari baimen sortuko ditu, kezu asko jaso dituelako. Arrasaten 11 taxi daude eta teorikoki, biztanleriaren arabera, 19-20 inguru egon beharko lirateke.

Lizentziak jasotzeko aukera datorren uztailean zabalduko da, eta epeak betez gero, irailerako hamahiru

taxi egongo dira Arrasaten.

■ Gaitzespena

Arrasateko EAK Jose Luis Lopez de Lacalleren heriotza gaitzesteko mozio bat aurkeztu zuen pasa den aste-ko osoko bilkuran. Bost puntutan atentatua gaitzestea eskatu zen, eta baita Udaleko zinegotziek jasandako eraso eta mehatxuak gaitzestea ere. Horrez gain, "PPri eta PSE-EERI eskatu zitzaion euskaldunok gure etorkizuna erabakitzeke dugun esku-bidea errespetatzea". Euskal Herriko gatazkaren konponketa elkarrizketaren bidez lortu behar dela baieztatu zen. Mozioa onartu egin zen.



■ Sexologia zerbitzua

Azken hiru urteotan emandako sexologia eskaintzari eutsi eta zerbitzu zabalagoa eskainiko du udal sexologia bulegoak


hemendik aurrera. Batetik ordu aldaketa izango du, orain arte baino bi ordu gehiago zerbitzua eskainiko da. Hain zuzen ere, astelehenetan 17:00etatik 20:00etara egongo da zabalik, eta ostegunetan 15:00etik 18:00etara. Horrez gain, herritarren parte hartze zabalagoa eskainiko da eta udaleko sailekin nahiz herriko bestelako erakundeekin elkarlanean, planak, programak eta jarduerak aurrera eramateko asmoa ere badu.

“ 80ko hamarkadak oroitzapen onak eta txarrak ekartzen dizkit, baina balantzan jarrita, onak dira. Erabiltzen genituen drogekin lotuta daude, heroinarekin batez ere. Pasarte horiek, heroinaren etengabeko erabilpenetik ikusi nahi badituzu, negatiboak izan daitezke. Oso gogorra da ikustea hainbat taldek eta gure partaide batek zela bukatu duten, baina zulo horren barruan bazeuden beste gauza asko: adiskidetasuna, elkartasuna, roilo txarrak, onak... Ezin leike droga alde batera utzi. Ez ginen musikoak edo drogadiktoak, musiko drogadiktoak baizik. Drogadiktoak ez bagina, ez dakit RIP nolakoa izango zen. Ezin dira banatu. Gaur heroinaz dagoen ikuspegia bestelakoa da. Gazteak ginen, eta dibertsio hutsa zen. Ez genekien ze arrisku ekar zezakeen. Hala ere, heroina ez zen RIPen hasieratik sartu”.

KARLOS "MAHOMA"

Putz

(2000ko ekaina)



Zure begien
lilurarako

TAKOLO AUTOAK

Araba Etorbidea, 3 Eskatu Pabilioia
Tel.: 943 79 05 86 ARRASATE

ZAFIRA



OPEL

Bilioi bat salmentetan MCCk iaz

Bilioi bat pezetako salmenta kopurua gainditu du MCCk lehenengo aldiz. 1999ko datuak dira eta atzo, osteguna, eman zituen jakitera Antonio Cancelok, MCCko lehendakariak, prentsaurrekoan. Industria eta Banaketa Taldeen salmentak eta Euskadiko Kutzaren Baliabide Bitartekatuak batuta ateratzen da bilioia.

Industria eta Banaketa taldeek, 1.044 bilioi pezetako salmentak izan dituzte. Finantza taldean, Euskadiko Kutzaren Baliabide Bitartekatuak 1.059 bilioi izan dira. Eta Lagun-Aroren Ondare Fondoa 333.303 milioira iritsi ziren.

“Iazko prentsaurrekoan iragarri bezala, 1999ko inbertsioak MCCk sekula izan dituen handienak izan ziren”.

Cancelok MCCn sortu diren lanpostuen kopurua ere eman zuen: 1999an 4.732 lanpostu berri sortu zituzten eta



MCCko ordezkariak iazko prentsaurreko batean.

urte bukaeran Taldean 46.861 lagun zebiltzan lanean.

ASMO BERRIAK

Datu ekonomikoen gain, Cancelok MCCk dituen bi asmo nagusien berri ere eman zuen: Garaia proiektuaz eta nazioarteko plan estrategiko korporatiboari buruz. Nazioarteko plan estrategikoaren gainean, esan behar da 2000-

2004 epealdian “industria Taldeak jardun beharko dueneko nazioarteko eszenatokia eta strategiak zehaztu nahi dituela. Aurten, Industria eta Banaketa taldeen baterako salmentak 1.177 bilioi pezetaraino iritsiko dira; inbertsioak 120.000 milioikoak izango dira”. MCCk 53.000 lanpostu aurreikusten ditu urtearen amaieran.

Giza baloreak sustatzeko

Mondragon Unibertsitateak Praktiker izeneko egitasmoa sortu du, enpresetan giza baloreak sustatzeko. Joan den hamarkadako balore krisialdiaren ondoren, enpresa askok giza alderdia indartzea erabaki zuten eta hauxe da horren emaitzetako bat.

ELKARRIZKETA

Enpresei giza alderdian sakontzen laguntzeko tresnak aztertu eta probatzen ditu. Funtszeko tresna langileen eta zuzendaritzaren arteko elkarrikeria da. Guztien konpromisoa lortu nahi da horren bidez.

Debagoiengan Copreci eta Ederlanekin dabilza lanean. Hemendik kanpo Eusko Jaurlaritzako hainbat sailekin ere egin dute lan.

Praktiker 2000-2004 urte arteko plangintzarekin jarriko da martxan.

Kanpazar ixteko eskaera

Larunbatean Kanpazarko harrobiaren aurkako ekintza burutuko dute harrobien aurkako kanpainaren barruan ekologistek. Ekitaldia Arrasateko harrobien egoeraren berri emateko informazio-kanpainaren barruan sartzen da. Izan ere, deialdia egin dutenek zera adierazi dute:

- Onartezina da harrobi horrek hain emblematikoa den Udalatxan magalean egiten ari den kalte paisajistikoa, kontuan hartutako kalitate handiko paisaia dela.

- Eusko Jaurlaritzak baimendutako 700 metro-

ko kotatik gora jo duela legez kontra eta era berean, Udalatxera joateko bide publikoa deuseztatu duelako.

- Ez delako onargarria faktore ekonomikoak baka-rik izatea lehentasuna, partikular batzuen mesedetan eta hiritarrok lekurik preziatuenez egoera naturalean gozatzeko dugun esku-bidearen kaltetan.

Larunbateko protesta, talde honek egiten duen bigarrena izango da. Hitzordua eguerdiko 12etan Kanpazarko harrobian. Hantxe harrobiaren egoeraren berri emango dute.

ISO 14001 Coprecirentzat

Ingurumena zaintzen eta errespetatzen duelako onarpena jaso du Aretxabaletako Copreci kooperatibak: ISO 14001 ziurtagiria. Azken urteetan lan handia egin du Coprecik kutsadura gutxitzeko. Ur beroa darabilen makina batek egiten du gar-

biketa, disolbatzaile bari-koak. Horrez gain, hondakinak banatu eta birziklitzeko lantegietara bidaltzen dituzte. Ondorioz, gaur egun Coprecik %25 murriztu ditu atmosferako igorpenak eta aurrerantzean %60 gutxitzea da helburua.



Mobilizazioak nonahi presoen eskubideen alde

Euskal presoekiko elkartasun astea izan da egunotan Mondragoen eta inguruotan. Mobilizazioak egin dira herrian, euskal presoen oinarritzko eskubideak aldarrikatzeko. Era berean, salatu da presoen aldeko aldarrikapena gizartearen eskaera izan arren, ez zaiola inolako kasurik egin, eta, ondorioz, herri honen hitza eta erabakia ez direla errespetatzen.

Arazoi hauekin, asteartean ikasleak kalera irten ziren. Eskoletan greba egin ondoren, eguerdian eta iluntzean agerraldia egin zuten. Egun berean, LAB sindikatuak prentsaurre baten bitartez bat egin zuen presoen aldeko astearekin. Asteazkenean, berriz, politikarien txanda izan zen. Udaltxean itxialdian egon ziren EHko zinegotziak. Ondoren, eguerdian, kale bilkura izan zen Herriko Plazan. EHko, EAKo eta EBko ordezkariak hantxe izan ziren ordu erdiz, baita plazara gerturatu ziren hainbat herritar ere. Iluntzean kale agerraldia izan zen.

Atzo, bestalde, grebarako



EA, EH eta EBko udal ordezkariak bilkura egin zuten asteazkenean.

deialdiarekin bat egin zuten herriko lantoki askok. Etxe honetako langileek, esaterako, bi orduko lanuztea egin zuen

goizean. Eguerdian, berriz, kale agerraldi jendetsua egin zen Mondragoeko kaleetan zehar.

Gaur ere mobilizaziorako deialdia izan da eta agerraldiak egin dira.

Elkartasun astearekin bukatzeko, bihar Donostian egingo den kale agerraldira-ko autobusak irtengo dira Mondragoetik.

MOBILIZAZIOEN ESKAERAK

- Euskal presoak Euskal Herriratzea.
- Gaixo dauden presoak aske uztea.
- Zigorren hiru laurdenak beteta dituztenak askatzea.

MONDRAGOEN PRESOEN EGOERA

13 preso daude Arrasaten. Horietatik lauk beteta dituzte zigorraren hiru laurdenak eta kalean egon beharko lukete.

Pedro Guridi: 1980an atxilotu zuten eta 1995ean bete zituen zigorraren hiru laurdenak. Orain Langraitzen dago.

Goio Etxabe: 1995ean atxilotu zuten eta 1999an bete zituen zigorraren hiru laurdenak. Orain Martutenen dago.

Jon Agirre: 1981ean atxilotu zuten eta 1996an bete zituen zigorraren hiru laurdenak. Orain Huelvan dago.

JM Zabarte: 1984an atxilotu zuten eta 1999an bete zituen zigorraren hiru laurdenak. Orain Huelvan dago.

Zerrajerak badu proiektua

Zerrajera ingurua urbanizatzeko behin betiko proiektua aste honetako Gobernu Batzordeak onartu du. Besteak beste, bi biribil izango dira gunean: bata, antzinako hiltegi inguruan, eta bestea, Kontzeziñon. Bi biribilek erreka zeharkatuko dute, beraz, zubi lanak ere beteko dituzte. Horrez gain, Zerrajerako proiektua laburbilduz, Nafarroa etorbidea urbanizatzea ere onartu da, baita UCEMen ekialdeko erai-

kina botatzea eta Deba ibaia bideratzea ere.

“Zerrajera Etxebizitzak S.L.” enpresa izan da behin betiko proiektua aurkeztu duena. Arrasateko Udalak hitzarmen bat sinatuko du enpresa horrekin, besteak beste, urbanizazio lanak nola egin zehazteko. Era berean, lanen Jarraipen Batzorde bat eratze ere eskatuko zaio aipatutako enpresari.

Badirudi, bada, Zerrajerako lanak aurrera doazela, jendearen pozerako.

Presoen aldeko kooperatibistak

Euskal Presoak Euskal Herrira Kooperatibetako Plataformaren aurkezpena izan zen asteazkenean Monterronen. Bat egin zuen presoekiko elkartasun astearekin. Itxialdirako deiladia jarraituz, hirurogei bat kooperatibistak gaua lantokietan pasatu zuten. Era berean, bat egin zuten bi orduko lanuztearekin.



Ikerlan pozik emaitzekin

1.817 milioi pta irabazi zituen Ikerlanek iaz. Horrela eman zuen aditzera Pedro Etxabek, Ikerlaneko kanpo harremanetarako arduradunak, joan den astean egindako prentsaurrean.

Pozik azaldu ziren Ikerlaneko ordezkariak, iazko balantzea egitean. Izan ere, 1999. urtean zehar, aurreko urtean baino %11 gehiago irabazi zuten. Irabazi hauen artean ikerkuntzatik eta garrantzirik lortu diren 1.152 milioiak nabarmendu behar-ko lirateke.

Nazioartean bideratutako produktuak ere aipatu ziren Ikerlanen Batzar Orokorrean. Eta ezin ahaztu, jakina, enpresaren 25. urteurrena ere ospatu dela 1999an. Iaz ekitaldi ugari egin zituzten hau ospatzeko.



Pedro Etxabe, Ikerlaneko kanpo harremanetarako arduraduna.

ERRONKA UGARI

Etorkizunean ere ez dute geldi egon nahi; erronka ugari dituzte. Besteak beste, XXI. menderako oso garrantzitsuenak izango diren bi teknologiatan

oinarriak jarri dituzte martxan. Batetik, mikrosistematan eta erregai piletan. Mikrosistematan lau urterako 650 milioi pezetatako inbertsioa izango dute. Bestetik, auto-

mozioan, domotikan eta zenbakizko kontrolean erabiltzen da makrosistema baliabide moduan.

Arlo horri dagokionez, gainera, hainbat lan elkarlanean egin dituzte Glasgowko Unibertsitatearekin eta Mikroelektrikako Zentro Nazionalarekin.

Erregai pilak, berriz, energia elektrikoa lortzeko modu berri bezala erabili nahi dituzte Ikerlanek. Donostiako Cidetec fundazioarekin eta EEBBetako laboratoriora baten ere elkarlanean ibiliko dira arlo honetan.

Horrez gain, nazioartean beste hiru proiektu garatzeko baimena ere lortu du Europar Batasunetik. 348 milioi pezeta izango ditu horretarako Ikerlanek.



Etxeko Traste Zaharrak jasotzeko zerbitzuaren EGUTEGIA

- Zerbitzua hilean egun batetik bira pasatuko da ekainetik aurrera.
- Trasteak jasotzeko egunak hileko 1. eta 3. ostegunak izango dira.
- Jai eguna izango balitz hurrengo ostegunera pasatuko da.
- **Goizeko 8ak baino lehenago utzi behar dira trasteak, zaborra jasotzen den tokian.**
- Abuztuan ez dago zerbitzu hau.

ARRASATE

ez ahaztu Goizeko 8ak baino lehenago



Aurrez deitu behar da
943 79 33 99

EKAINA

A	A	A	O	O	L	I					
			1	2	3	4					
5	6	7	8	9	10	11					
12	13	14	15	16	17	18					
19	20	21	22	23	24	25					
26	27	28	29	30							

UZTAILA

A	A	A	O	O	L	I					
					1	2					
3	4	5	6	7	8	9					
10	11	12	13	14	15	16					
17	18	19	20	21	22	23					
24	25	26	27	28	29	30					
							31				

IRAILA

A	A	A	O	O	L	I					
						1	2	3			
4	5	6	7	8	9	10					
11	12	13	14	15	16	17					
18	19	20	21	22	23	24					
25	26	27	28	29	30						

URRIA

A	A	A	O	O	L	I					
						1					
2	3	4	5	6	7	8					
9	10	11	12	13	14	15					
16	17	18	19	20	21	22					
23	24	25	26	27	28	29					
30	31										

AZAROA

A	A	A	O	O	L	I					
			1	2	3	4	5				
6	7	8	9	10	11	12					
13	14	15	16	17	18	19					
20	21	22	23	24	25	26					
27	28	29	30								

ABENDUA

A	A	A	O	O	L	I					
						1	2	3			
4	5	6	7	8	9	10					
11	12	13	14	15	16	17					
18	19	20	21	22	23	24					
25	26	27	28	29	30	31					



SEVILLAK KOLORE BEREZIA DU...

Horra hor Monttarroneko hitzaldi aretoa leporaino bête zuen gizona: Mariano Ferrer kazetari donostiarra. Komunikabideetaz aritu zen: zentsuraz, manipulazioaz, eta abarrez. Bere ondoan Iker Barandiaran kazetari arrasatearra izan zuen, hura ere adi-adi entzuten.

Aurtengo Apirileko Feriari arrasatear lagun talde honek eman zion kolore ikutu berezia. Guztiak soineko berdinarekin zeudenez, jendeak dantza taldea zirela pentsatu zuen, eta Sevillako hainbat aldizkari-ritan irten ziren. Ziur Ole mordo bat eman zietela sevillarrek.

MARIANO FERRER MONTERRONEN



MAKINA
ERREMINTAREN
INSTITUTUA

INSTITUTO
DE MAQUINA
HERRAMIENTA

INFORMAZIOA:
San Roke Auzoa, 1 - Elgoibar, Gipuzkoa
Tlf: (34) 943.744132 - Fax: (34) 943.744153
e.mail: amaia@fmh.es

2000/2001 IKASTURTEA HEZIKETA ZIKLOAK

GOI MAILA (A eta D ereduak)

- PROIEKTU MEKANIKOEN GARAPENA
- MEKANIZAZIO BIDEZKO PRODUKZIOA
- INDUSTRI EKIPOEN MANTENIMENDUA

ERDI MAILA (A eta D ereduak)

- MEKANIZAZIOA

**Ekainaren 1ean atek zabalik
Arratsaldeko 7etan**



ISO 9001

Izena emateko epea: Ekainaren 1etik 12ra, biak barne

MUNDUARI BIRA UARKAPEN



Aurtengo oporretan nora joan erabakitzeke aukera aparta izan genuen asteburuan, Feriturren, Debagoieneko I. Turismo Azokan. Uarkapen izan zen eta jende piloak erakarri zuen. Erakustokietan, Espainiako parke naturalak, Afrika, Futuroscope, Disneyland... eta jakina, Debagoiena.

IZENAK

Pablo Barrena



Berrogeita hamar urte bete ditu abade moduan, Musakolako San Isidro elizako parrokoak.

1950ean abadetu zen Gasteizen eta 25 urte zituela Musakolara bidali zuten. San Isidro egunean Gipuzkoako gotzainaren omenaldia jaso zuen.

EZKONGABE, AZKEN PARTIDA

Aurrean dauden bi pilotazaleek, Gorkak eta Unaik, orain bi aste jokatu zuten ezkongabe moduan azken partida, eta garaipena ospatzera Iruñeara joan ziren lagunekin batera. Zorionak eta zorte on hurrengo pilota partidetan!



EUSKARAREN EGUNA

Eguraldi bikainaren epeletan, jende mordoak izan zen Aretxabaletan asteburuan ospatutako Euskararen Egunean. Bertsolari eta musikariek, urtero moduan, txalo zaparrada ederra jaso zuten.



Bonaventure • Diesel
Pepe • Levis

Otalora, z/g Behea ARRASATE
Tel.: 943 79 11 72



Zorua • Lijatu eta barnizatuak •
Erradapiak • Leihoak • Ateak •
PVCko leihoak •
Aluminiozko leihoak •
Eskailerak • Armairu enpotratuak...

GREMIOEN KOORDINAZIOA

Erakusketa eta biltegia:
Kale Txiki, 3 - behea • ARRASATE
Tel.: 943 77 11 20 • Faxa: 943 77 11 20

HIES BERRIA

Tel.: 943 79 26 99

Hiztegi Batuaren lehen zatia amaiturik dago

Nola idatzi behar dugu, injinerutza ala ingeniariutza, ihardunaldiak ala jardunaldiak, yogour ala jogurt? Euskara irakasleak, itzultzaileak, idazleak, kazetariok eta orokorrean euskaraz lan egiten dugun guztiok horrela ibili izan gara, hitz zuzenarekin ezin asmatu.

Arazoa aspaldikoa zen. Axularrek berak argi adierazi zuen 1643an: "Eztitutze euskaldun guztiek legeak eta azturak (ohiturak) bat, eta ez euskarazko mintzatzea ere, zeren erresumak baititutze diferent".

Zorionez, era horretako zalantza asko, testu ez espezializatuei dagozkien gehienak, konpondu egin dira Euskaltzaindiak Hiztegi Batua onartzearekin batera. Orain badakigu "ingeniariutza", "jardunaldiak" eta "jogurt" idaztea zuzenagoa dela. Gauza bera beste berba askorekin.



Haritxelar, Lizundia, Telleria eta Goenaga Aramaion, Lore Jokoetan egindako bileran.

Lehen hiztegi batua 1968an sortu zen. Orduan *Batasunaren Kutxa* deitu zitzaion. Euskaltzaindiak 2.000 hitz onartu zituen, euskara batuaren corpusa sortzeko.

Urte luzeetan, baina, hitz multzo horiekin konpondu ginen. Arazo askorekin, oso hitz multzo murrizta zelako. Horregatik, 90. hamarkadan sartu ginenean, euskaltzaleak inoiz baino indar handiagoa

EUSKARA BATUA ERAIKITZEN

Inguruko hizkuntzek —gaztelaniak eta frantsesak, adibidez— bost mende behar izan dituzte batasunera iristeko. Euskarak, berriz, hogeita hamabi urtean egin du bide hori.

- 1964** Baiona. Idazle gazteen bilera, batasuna bultzatzeko.
- 1968** Arantzazu. Euskaltzaindiaren urrezko ezteiak zirela eta, hantxe moldatu zen batasunaren lehen arau multzoa.
- 1978** Bergara. Batuaren onespenez zabala egiaztatu zen.
- 1979** Arrasate. Seber Altuberen omenezko kongresua. Gramatika Batzordearen lehen haziak.
- 1987** Orotariko Euskal Hiztegiaren lehen liburukia.
- 1994** Leioa. Euskaltzaindiaren XIII. Biltzarrak. Batasunaren inguruko arau gehiagoko kaleratuko dira.
- 1995** Hiztegi Batuaren lehen atala.
- 1998** Donostia. Euskara Batuaren Aholkari Zainduaren gaineko lehen erabakiak.
- 2000** Bilbo. Hiztegi Batuaren azken hitzak onartu ziren.

egiten ari ziren Euskaltzaindiak hiztegi batu moduko bat atera zezan.

Azkenean, 1991n, Hiztegi Batuaren batzordea sortu zen, zalantzan zeuden hitz asko nola idatzi erabakitzeko eta erakusteko. Ordurako Euskaltzaindiak abiatuak zituen munta handiko lanak, hiztegiaren lana izugarri errazten zutenak: Gramatika batzordea, Orotariko Euskal Hiztegia, Hauta Lanerako Euskal Hiztegia, Egungo Euskararen Bilketa-Lan Sistematikoa, etab.

LAN PROZEDURA

Hiztegi Batuaren batzordea 1992an hasi zen lanean. Doze-

na bat lagunek osatzen zuten. Hasieran astiro, baina denborak aurrera joan ahala geroz eta agudoago, batzordeak ordu mordo sartu zituen lantegi honetan.

Batzordekideek letra bakoitzari zegozkion zerrendak osatzen zituzten. Ondoren, 90 bat iritzi emaileri bidaltzen zitzaizkien (tartean idazleak, irakasleak eta itzultzaileak, besteak beste), haien iradokizunak jasotzeko. Oharrak hartu ostean, aztertu eta behin behineko zerrendak egiten ziren, Euskara Batuko batzordeari pasatzeko. Azken proposamena Euskaltzaindiaren osoko bilerara eramaten

zen, euskaltzain osoek erabaki zezaten.

Guztira 20.000 hitz onartu dituzte. Hauetako askotan, gehienetan, ez da arazorik izan eta aho batez onartu dira. Adostasunik izan ez denean, berriz, bozketa egin izan da. Horixe izan da, beste askoren artean, "zerri/txerri" edo "ihardun/jardun" hitzen kasua.

Zortzi urteko lana izan da, nahiz eta lehen zerrenda kaleratu zenetik bost urte igaro.

LASTER ARGITARATZEKO

1994an azken aldiko lehen erabakiak kaleratzen hasi eta berehala, Euskaltzaindiak koarderno berezi batzuk sortu

zituen, hartzen zihoan erabakiak eta arauak argitaratzeko.

Orain ere, prestatzen ari da, BBVA bankuarekin batera, liburu bat, Hiztegi Batua jasoko duena eta, honekin batera, exonomastikaren inguruko erabakiak eta, oro har, 1994tik hona kaleratu dituen arau guztiak. Orain azken zuzenketak egiten ari dira, lehenbailehen kalera dadin. BBVAk argitaratu du, bera izan da eta Hiztegi Batuko lan guztiak ordaindu dituena.

Liburu hau, ateratzen denean, euskararen inguruko profesionalen eta euskaltzale askoren biblia bihurtuko da datozen urteetarako. Bitarte-



JOSEMARI VELEZ DE MENDIZABAL

(Idazlea)



MIREN ARREGI

(Irakaslea)



KARMELO URIBARREN

(Itzultzailea)



MAIDER OSA

(Kazetaria)

Edozein hizkuntza zibilizatu entziklopedia bat eduki behar duen bezalaxe, eduki behar du hiztegi batu bat. Euskararen kasuan, urtetan pairatu dugun hutsunea betetzera dator Hiztegi Batua. Alde horretatik, ongi etorrikeri beroena.

Hala eta guztiz ere, iruditzen zait bere garapenean behar bezalako arrakasta izan dezan, ahaztu behar dugula zurrunkeria edo flexibilitate falta. Komunikabideetan, adibidez, iluntasunetik zurrunkeriara pasatu gara. Eta hori ez da bidezkoa. Beraz, malgutasuna ezinbestekoa da.

Badakigu, oinarritzko hiztegi batu horretan ezingo direla, guk, bakoitzak, geure euskalkian ezagutzen ditugun hitz guztiak azaldu. Hala ere, orain arte, zenbait kasutan, hitz beraren inguruan izaten genituen zalantzak, *panpina/panpin, makila/makil, ixotu/iziotu/isiotu* adibidez, argitu eta zehaztu egingo dizkigu.

Irakasleok, hasieran, seguruenik nahi baino sarrigero begiratu beharko dugu hiztegiaren baina, "Ongi etorri" hiztegi berriari eta "Zorionik beroenak" Euskaltzaindiari.

Bukatzeko, Euskaltzaindiari eskaera bat egin nahi nioke, aipatutako hiztegi hori jar dezala ahalik eta azkarren guztion eskura.

Eguneroko lanean, euskaraz idatzi, itzultzen dugunok edo euskaraz idatz-moldatzen ari garenok, ondotox eskertzen dugu hiztegi batua moduko lan handia. Zalantzaren bat dugunean, adibidez, zelan idatzi ostirala gure euskalkian: *egubakoitza*. Hiztegi batuan halaxe dator. Hortaz, ahalegin berezia egin da hango eta hemengo berbak batu eta hiztegiaren paratzeko.

Hiztegi batuak balio du erakusteko batu egin behar dugula gure euskalkiko eta besteen euskalkietako euskara eta zinez batze horrek, hiztegi batuak, euskaldunok gehiago batuko gaituelako gure herri izatearen geroan.

Lantresna erabilgarria izango da Euskaltzaindiaren hiztegi batua, gehiegizko erabilera eginez euskalkiak baztertzeko ez badira.

Demagun euskararen enborra direla hiztegi batuko erabakiak. Baina, zuhaitza abarrek eta hostoek ere janzten dute, eta hor legoke euskalkien tokia.

Hori guztia kazetari jardunean txertatuz, bereiztu egin beharko liriteke idatzizko eta ikus-entzunezko hedabideak. Baita hedabide nazionalak eta herri-hedabideak ere.

Edo bekatu da *kotxe* batek *kanposantuko* horma jo ondoren hildako bat izan dela esatea Arrasaten?

an, horren premia duenak Euskal Herriko Unibertsitateak iaz argitaratu zuen *Euskaltzaindiaren araugintza berria: ikastaroa* izeneko liburura jo dezake.

E' ETA H.

Hiztegi osoan zehar bi letra hauek —e. eta h.— agertzen dira sarri. Zer esan nahi dute? e. = erabil; h. = hobe (forma hobetsia ondokoa da).

Esate baterako, bi hitz hauek honela agertuko dira: “yogour* e. **jogurt**”. Kasu honetan, Euskaltzaindiak ez du onartzen asteriskoa daraman hitza. Beltzez doana, berriz, bai.

Berba asko agertzen dira horrela. Guk adierazgarrienak aukeratu ditugu eta erreportaje honen azken orrialdean agertzen dira, ez-bai eran aurkezturik, irakurleak jakin dezan.

Bada beste hitz multzo bat, hobetsiena. Kasu honetan hitz biak letra lodiz idatzita datoz. Adibide bat: “Boligrafo (gaztelaniaz bakarrik esaten da) h. bolaluma”. Euskaltzaindiaren ustez, batasunerako hobe da eskuineko forma erabiltzea, txukunagoa eta tradizio hobekoa delako. Ezkerrekoa lagun artean, inguru jakin batean edo formalak ez diren egoeretan erabiltzeko izan daiteke. “Kasu honetan —dio Miren Azkarate euskaltzainak— Euskaltzaindiak proposamena egiten du, ea

HOBESTEN DIRA

Euskaltzaindiaren ustez, batasunerako hobe da eskuineko formak erabiltzea, txukunagoak eta tradizio hobekoak direlako. Ezkerrekoak lagun artean, inguru jakin batean edo formalak ez diren egoeretan erabiltzeko izan daitezke.

ONDO	HOBETO
Boligrafo	Bolaluma
Enparantza	Plaza
Gaztelera	Gaztelania
Gurutzegrama	Hitz gurutzatuak
Ikerlari	Ikertzaile
Injineru	Ingeniari
Irla	Uharte
Karrera	Ikasketak
Kipula	Tipula
Moneta	Diru, txanpon
Negutegi	Beretegi
Partidu	Partida, alderdi
Pelikula	Film
Prehistoria	Historiaurre
Tailer	Lantegi

Hiztegi Batuaren bigarren aldian azken urteotan sortu diren hitz berri asko aztertuko dira

jendeak onartzen duen”. Adibide gehiago goiko taulan ikus dezakezue.

BATUA ETA EUSKALKIAK

“Euskalkiek toki bete-betea dute Hiztegi Batuan —segitzen du Miren Azkaratek—. Hitz mordoa dago euskalkietatik hartutakoak. Horietako asko eta asko bakarrik Bizkaian erabili izan dira, baina Euskaltzaindiak ontzat hartu

ditu Hiztegi Baturako”. Horixe daude, besteak beste, *abade, apartatu, atzamar, begirakune, bolu, dindirri, domeka, edozelan, eguazten, egubakoitz, eguen, ei, elai, erdu, eskuma, eskutur, eztegu, garbaitu, hegaz, ilunkera, ira, iretargi, iruntz, itzarrik, jakituria, jesarri...*

Hauek guztiak euskara batuko hitzak dira, gehienak bizkaieraren eremuan lasai asko erabil daitezkeenak.

JARRAIPENA

Gaur egun, bada, 20.000 hitzek osatzen dute Hiztegi Batua. Hala ere, lanak ez dira hor amaitu. Euskaltzaindiak dagoeneko ekin dio Hiztegi Batuaren bigarren aldian. Batzordea F letraraino iritsi da, lehen proposamenean.

Bigarren aldi honetan, ordea, beste era bateko berbak sartuko dira. Tradizioak ez du hainbeste pisurik izango. Beraz, azken urteotan sortu diren hitz berri asko aztertuko dira. Dena ondo badao, beste 20.000 hitz inguru proposatuko dira. 2005. urterako bukatuta egon liteke.

Axular mirestuta egongo litzateke gaur egun. Izan ere, beste ezerk baino gehiago, erresuma diferenteen gaineratik euskara batuak egiten gaitu herri. ■

Joxe Aranzabal

VOYEUR

Sabino Aranak c, v, w eta y guztiak ezabatu egin zituen euskal hiztegitik. Denak k, b edo i bihurtu zituen. Eskolan ere denok ikasi genuen euskaraz ez dagoela c, v edo uve bikoitzik. Horren ondorioz edo, Zaldibarko areto futbol txapelketan ere A, B, D eta E izendatzen dira taldeak.

Euskarak, ordea, aurrerabide handia egin du Sabinoren garaitik eta Euskaltzaindiak sartu egin ditu c, v, w eta y letrak hiztegi batuan.

C letran sei hitz baino ez dira agertzen: camping, campus, cm eta cl zentimetro eta zentilitroen sinbolo nazioartekoa, corpus eta couche paper.

V letran hogeita bi berba azaltzen zaizkigu, tartean vedette, versus, vodka eta voyeur.

W letra ez da ere oso oparoa: hamalau hitz dakartza, gehienak ingeles jatorrikoak; tartean walkie-talkie, walkman, western eta whisky.

Y grekoan hamar hitz baino ez zaizkigu agertzen. Besteak beste, yanki, yen, yoga edo yuppie.

Beraz, orain badakigu campus, vedette, whisky edo voyeur euskal hitzak direla.

Eta bitxikeria bat. Nola deitzen dio Euskaltzaindiak “ç” letrari? “Ze hautsia”. Horra.

HIZTEGI BATUA

Hona hemen Hiztegi Batuan agertu diren aldaketarik nabarmenenetakoko zenbait. Irakasleek, kazetariek eta, oro har, eus-

kaltzale guztiak gogoan hartu beharrekoak.

Lehen modu batean esaten ziren ber-

ba horiek, askotan Euskaltzaindiak berak hala gomendaturik, baina orain beste era batera erabili beharko dira.

EZ	BAI	EZ	BAI	EZ	BAI
• Adjetibo	• Adjektibo	• Kamara	• 1 Kamera, 2 ganbera	• Polbora	• Bolbora, sutauts
• Anbulategi . . .	• Anbulatorio	• Kamarero . . .	• Zerbitzari	• Poxpolu	• Pospolo
• Arraultza	• Arrautza	• Kanpaina		• Prejitu	• Frijitu
• Bibolin	• Biolin	• Karpaina	• Kanpadenda	• Razional	• Arrazional
• Erabakiorra . .	• Erabakigarria	• Kapiro	• Kapirio	• Record	• Errekor
• Amankomun . .	• Komun	• Karamelo	• Karamelu	• Rekete	• Errekete
• Artileria	• Artilleria	• Kardenal	• Kardinal	• Rifle	• Errifle
• Aurrekalde . . .	• Aurrealde	• Keramika	• Zeramika	• Rito	• Errito
• Bildur	• Beldur	• Kitarra	• Gitarra	• Rugby	• Errugbi
• Biper	• Piper	• Koartel	• Kuartel	• Ruleta	• Erruleta
• Bolondres . . .	• Boluntario	• Komisaldegia . .	• Polizia etxe	• Sabotaia	• Sabotaje
• Derrigorrez . .	• Derrigorrean	• Konfidantza . .	• Konfiantza	• Sailordetza . .	• Sailburuordetza
• Deskafeinatu .	• Kafeinagabe	• Konpromezu . .	• Konpromiso	• Sapai	• Sabai
• Diti	• Titi	• Korbata	• Gorbata	• Scanner	• Eskaner
• Edifizio	• Eraikin	• Kotxe	• Auto(mobil), beribil	• Scout	• Eskaut
• Ejerzito	• Armada, gudaroste	• Laberinto	• Labirinto	• Seda	• Zeta
• Entrepresa . . .	• Enpresa	• Langilego	• Langileria, langileak	• Seirehun	• Seiehun
• Entzulego . . .	• Entzuleria, entzuleak	• Lebatz	• Legatz	• Seksu	• Sexu
• Erazi	• Arazi	• Liburudenda . .	• Liburu denda	• Sekulan	• Sekula
• Eritzi	• Iritzi	• Liseriketa	• Digestio	• Senadore	• Senatari
• Este	• Heste	• Magisteritza . .	• Irakasle ikasketak	• Serraila	• Sarraila
• Examina	• Etsamina	• Mahainguru . . .	• Mahai inguru	• Sofritu	• Sufritu
• Exemplo	• Etsenplu	• Makailao	• Bakailao	• Solidaritza . . .	• Solidaritate
• Fraile	• Fraide	• Makilaia	• Makillaje	• Somatu	• Sumatu
• Fraka	• Praka	• Masaia	• Masaje	• Sonda	• Zunda
• Futbolin	• Mahai futbola	• Ministeritza . . .	• Ministerio	• Spaghetti	• Espageti
• Gasoil	• Gasolio	• Monastegi	• Monasterio	• Sprint	• Esprint
• Goilare	• Koilara	• Motore	• Motor	• Standard	• Estandar
• Haundi	• Handi	• Neumonia	• Pneumonia	• Stress	• Estres
• Hile	• Hil, hilabete	• Nonnahi	• Nonahi	• Suin	• Suhi
• Hipokresia . . .	• Hipokrisia	• Objetu	• Objektu	• Sujeto	• Subjektu
• Hortzore	• Hortzetako pasta	• Ohostu	• Ostu	• Susa	• Ziza
• Hostia	• Ostia	• Paeila	• Paella	• Sustantibo . . .	• Substantibo
• Ihardun	• Jardun	• Pake	• Bake	• Sustar	• Zuztar
• Ihauteri	• Inauteri	• Panpin	• Panpina	• Tantu	• Tanto
• Ikutu	• Ukitu	• Parkatu	• Barkatu	• Taxista	• Taxilari
• Ileapaindegia .	• Ile apaindegia	• Parrafo	• Paragrafo	• Txanpu	• Xanpu
• Irakurlego . . .	• Irakurleria, irakurleak	• Peaje	• Bidesari, ordaintoki	• Txingurri	• Txindurri
• Janaridenda . .	• Janari denda	• Pekatu	• Bekatu	• Untzi	• Ontzi
• Jubilazio	• Erretiro	• Piszina	• Igerileku	• Xagu	• Sagu
• Kabia	• Habia	• Pitxi	• Bitxi	• Xirimiri	• Zirimiri
• Kainabera . . .	• Kanabera			• Yogur	• Jogurt
				• Zai	• Zain
				• Zentru	• Zentro
				• Zumo	• Zuku
				• Zuzpeltu	• Suspeltu

Udaberria erretiratuendako

Urtero legez, udaberriarekin batera, herriko erretiratuek omenaldia izango dute. 1.000 bat lagun bilduko da bihar, zapatua, Musakolako kiroldegian, elkarrekin giro politaz gozatzeko prest. Parte hartzeko, Mondragoeko Abaroan izena emanda edukitzea da dagoen betebeharrak. Hortik aurrera, herriko edozein erretiratu gertura daiteke kiroldegiko jaira.

Auzo Lagunek jarriko du janaria, herriko nagusiek gogoia, eta bada giroa bertuko duenik ere. Antolatzaile lanetan, berriz, SUDC elkarteak ibili da, herriko Udalaren, Aurrezki Kutxaren eta merkatarien laguntzarekin.

Antzinako Caserio taberna izan zen omenaldiaren aitzindari; Udalpe elkarteak segitu zuen lan horretan. Baina, SUDC elkarteak sortu zenetik, duela 35 urte, berak hartu du



Iaz 1.000 lagunetik gora egon zen erretiratuen bazkarian.

erretiratuei omenaldia egiteko ardura. Oraindik ere horretan dabilta eta antolatzaileen esanetan, pozik, gainera.

“Txorizoarekin eta patata tortillarekin hasi zen erretiratuen omenaldia, meriendatxo bat emateko asmoarekin, besterik barik”. Baina, denborekin gero eta erretiratu gehiago animatzen hasi zen eta Udalpe elkarteak hartu zuen omenaldia egiteko txanda.

Horrekin batera, “menua ere aldatuz joan zen: oilaskoa izan zen hurrengo jakia”. Ondoren, SUDC elkarteak sortu zen, eta orain arte. “Erretiratuek urteetan zehar egin duten lana eskertzea da gure helburua, herrian egin duten ahalegina kontuan hartzea eta ganoraz eskertzea eta hauxe da gure modua”.

Beraz, hortxe dago deialdia, hortxe jai. Izena ematea besterik ez dago.

Egitaraua

- 11:00:** Kalejira eta etxaflero jautiketa.
- 12:30:** Herri-meza San Joan elizan.
- 13:45:** Garibai kaletik kiroldegira joateko autobusaren irteera.
- 14:00:** Lagunarteko bazkaria.
- 16:00:** Gizon eta emakume nagusienari saria. Erretiratuendako dantzaldia eta sari berezien zozketa.



Parques y Jardines

Parke eta lorategien sorkuntza.

Lorazaintzako mantenimendua orohar.

Landare-birsorkuntza hidroereintzaz.



Casa-Torre kalea. Tfnoa: (94) 681 90 82 ABADIÑO (Bizkaia)

Azken jaia larunbatean



Azkenean heldu da egun handia: azken jaiaren eguna, Arrasate Kirol Proiektuan aritu diren neska-mutiko guztien jai eguna. Aurten Iturripen barik, Uarkapeko Udal Pilotalekuan elkartuko dira ikasurtean zehar kirola egiten jardun duten neska-mutikoak eta eurekin lan egin duten begiraleak.

Ohi bezala, aurten ere ekin-tza ugari antolatuta dute egun horretarako. Goizeko 10etan ekingo diote jaiari eta ekitaldi nagusia eguerdian izango da.

EGITARAUA

Goizeko 10etan, bizikleta mar-txa tradizionala egingo dute. Uarkapen elkartzen direnak Aramaioraino joango dira bi gurpilen gainean. Eta haurren gurasoak ere gonbidatu nahi dituzte AKPkoek, baina ez ahaztu burukoak. Kirola egitea ona da, baina segurtasun neu-



San Viator neskekn futbol taldea..



Arrasate B saskibaloi taldea.

rriak hartzea ere komeni da. 10 bat kilometro egingo dituzte bertaraino. Joan-etorrian, beraz, hogeit bat. Izan ere, Uarkapen elkartuko dira berriz ere kirolzale-txirindulariak eta hantxe urte osoan zehar egindako esfortzua sarituko dute AKPko arduradunek. Domina eta garaikurren banaketa egingo da, sariak zotz egingo dira eta bestelako sorpresarik ere egongo da. Horrez gain, udalekuetarako zozketa ere egingo da, beraz, adi!

Gainera, ekitaldi nagusira hainbat kirolari ezagun gonbidatu dituzte eta eurek eman-gotuzte sariak.

Gogoratu, dena dela, ekitaldi nagusia egingo diren zozketetan parte hartzeko, monitoreek banatutako txartelak eraman behar dituzuela.

Hortaz, badakizue. Ondo pasa bada! Urte osoan kirola euskaraz egiten ibili zareten guztiok merezi duzue eta!

Bigarren kirol jaia

Bestalde, Almeneko ikastolan ere Kirol Jaia izango dute larunbatean. Bigarren urtez egingo dute Kirol Jaia eta ekintza ugari antolatu dituzte egun horretarako. 10:00etatik 11:00etara saskibaloi txapelketa jokatu da eta ondoren, 12:30ak arte, futbol txapelketa.

Bitartean, ondo pasatzeko aukera ere egongo da. Izan ere, grafitiak egingo dituzte ikas-tetxeko leihotatik zintzilik jarrita, lantegiak Torrebasen, ohe elastikoak, gaztelu puzgarriak, kart pista eta futbol

Almeneko II. Kirol Jaia



zelaian globoa puztuko dute.

Taberna ere jarriko dute umeen jolastera joaten diren gurasoentzako eta guztiek sorpresa izango dute hara gerturatzeagatik.

Jaiak egun osoan zehar iraungo du. Izan ere, arratsaldeko 6etan egingo da aurtengo sari banaketa.

Goiz eta arratsaldez
jaia egongo da
Almenen



Geldik!!

Horrela harrapatu zituen argazkilariak Zaldibarko jokalri hauek. Jokaldia errepikatzeke moduan!

FINAL LAURDENAK JOKOAN

Iritsi gara dagoeneko Zaldibarko txapelketako azken txanpara!

Final laurdenak ate joka ditugu eta larunbatean eta igandean jokatuko dira. Baina, oraingoan

ere liskarrak izan dira tarteko. Epailen aurka jo dute hainbat taldek, euren epaiak kritikatzeko. Hala ere, epailen alde zera esan behar dugu: aukera eman dute behin eta berriz boluntarioak agertzeko. Azkenea, ordea, ez da inor agertu

eta antolakuntzakoek egin behar izan dute epaile lana. Gauzak horrela, kritikak egin beharrean, ekintzak burutu eta hurrengoan parte hartu. Bestela datorren urtean, zer?

Larunbatean eta igandean jokatuko diren final laurdenei

dagokienez, iaz bezala ACSurkos, Aldibi eta Branka Taberna taldeek jokatuko dute, eta eurekin batera (bakoitza bere aurkariarekin) Timoftol, Etxerat Taberna, Dribling, Irati STS eta You Know izango dira jokatuko dutenak.

Kalitateak mugarik ez



ARGI-PLASTIK

Leihoen fabrikazioa, PVC, aluminioa eta poliuretanoa
Zigorrola, 1 8. Pabilioia
Tel.: 943 77 11 30
ARRASATE



Sailkatuak

A taldea	B taldea	D taldea	E taldea
AC Surkos	Etixerat Taberna	Aldibi	You Know
Timoftol	Dribling	Irati STS	Branka Taberna

Emaitzak

A taldea

IKP 6 - Garaje Oscar 5
Timoftol 5 - AC Surkos 6

B taldea

Etixerat Tab. 4 - Dribling 5
Kom. Alpagat 1 - Kan. Harrobia 5

D taldea

Orlando Piratas 3 - Aldibi 3
Irati STS 7 - AT Lokala 5

E taldea

You Know 5 - DA Iriztu 5
Branka Taberna 5 - Kamasutra 2

Hurrengo partidak / Final laurdenak

Iarunbata, 27

Zaldibar

10:50 Etixerat tab. - Branka Tab.
12:00 AC Surkos - Irati STS

igandea, 28

Zaldibar

10:50 You Know - Dribling
12:00 Aldibi - Timoftol



Goi mailako Lanbide Heziketako B. Institutua
Miguel ALTUNA

Ibargarai 1 • Bergara • Tel.: 943 76 24 91/943 76 38 40 • Bulego orduak: 09:00 - 13:00



GOI MAILAKO PRESTAKUNTZA ZIKLOAK

- Administrazio eta finantzak
- Erregulazio eta kontrol sistema automatikoak
- Mekanizazio bidezko produkzioa
- Proiektu mekanikoen garapena
- Plastikoa eta kautxugintza



ERDI MAILAKO PRESTAKUNTZA ZIKLOAK

- Mekanizazioa
- Ekipo eta instalazio elektroteknikoak
- Administraritza kudeaketa

Aurrematrikula epea ZABALIK:

ekainaren 1etik 12ra


Ohiko matrikula epea:

uztailaren 3tik 7ra

- Norberaren gaitasun eta nahien arabera egokitutako ibilbideak
- Behar diren baliabideekin
- Bide eta ate guztiak zabaltzen dituen ikasketak
- Eskola publikoa: integratzailea eta anitza


Berri gehiago nahi baduzu, deitu gure telefonoetara eta gure eskaintzari buruzko azalpenak emango dizkizugu.

ESKUBALOIA Azkena galdu

 Kadete mailako Arrasate Eskubaloia Taldeak galdu egin zuen denboraldiko azken partida. Derbia izan zen eta Almenen aurka 17 eta 9 galdu zuten. Ondorioz, laugarren geratu dira kopan. Hiru partida galdu dituzte eta bat bakarra irabazi. Dena dela, lehenengo urtea izan da kadetetan aritu direla, hortaz, ligan 7. amaitzea ez dago bateretxar to. Denboraldi nahiko ona egin dute gaztetxo hauek.

Seniorrek aste honetan denboraldiko azken partida jokatu dute. Etxean izango da eta Loiola izango dute aurkari. Ea, bada, azkena irabazten duten. Gazte mailakoek etxean jokatu dute Almen Jakionen aurka. Hauena ere, denboraldiko azkena izango da.

ATLETISMOA Infantiletara

 Joan den larunbatean Arrasate Kiro-lak Atletico Taldeko kirolari gazteenak Iturripen aritu ziren. Infantiletan aritzeko promozio probak izan ziren.

A taldean 50 metroko lasterketan Ander Trojaola izan zen azkarrena.

Pisu jaurtiketan Beñat Barberenak 9 metroko jaurtiketa egin zuen.

Luzera jautzian Iñaki Telleriak 3,21 metroko jautzia egin zuen.

B taldean, berriz, 50 metroko lasterketan Julen Bilbao eta Amaia Iñurria izan ziren azkarrenak.

Pisu jaurtiketan eta luzera jautzian, nesketan eta mutiletan, Julen Bilbao eta Amaia Iñurria izan ziren onenak.

FUTBOLA Bukatu da, akabo

 Lehen erregionaleko Mondrak 5 eta 1 irabazita amaitu du denboraldia. Elgoibarren aurka Atxabalpen ondo amaitu nahi izan zuten Garairen mutilek. Sailkapenean, atxabaltarrek baino zortete hobea izan dute. Atxabaltarrak bigarren erregionalerara zazpigarren amaitu dute; liderrengandik 26 puntura.

Datorren urteari begira taldea sendotzea eta gehiago entrenatzea baino ez da gelditzen. Bitartean, oporrak ere hartuko dituzte Atxabalpekoek. Ohorezko gazteek eta bigarren mailako gazteek neurketa izango dute asteburuan. Lehenengoek Seguraren aurka jokatu dute eta bigarren mailako gazteek Axularren aurka.

Besaideren mendi astea

Igandera arte iraungo du Besaidek antolatatu duen Mendi asteak. Gaur bertan, pasa den udan Broad Peak mendira joan ziren espedizioako kide batek hitzaldia eskainiko du Monterronen. Xabier Rozas beste bost lagunekin joan zen ekainaren 13an zortzimilakoa egitera, Iñurrategitarrek 1997an igo zuten gailurrera. Hitzaldia arratsaldeko 19:00etan izango da.

Larunbatean, bestalde, mendi bizikleta irteera antolatuko dute. Arrasate-Tailamendi-Kurtzeta-Asentzio-Untzila-Arrasate ibilbidea egingo dute. Irteera goizeko 9etan izango da Musakolako kiroldegitik.

Iganderako, eta Mendi Astearekin amaitzeko, mendi irteera egingo dute Belaguako bailarara. Larunbat arratsaldean abiatuko dira eta gaua Urzainkin pasatuko dute.



Emaitzak

ESKUBALOIA

- **Lehen Territoriala**
Tolosa 28 - Arrasate Almen 26
- **Gazteak**
Arrate 30 - Arrasate 14
- **Kadeteak**
Almen 17 - Arrasate 9

FUTBOLA

- **Lehen erregionala:**
Mondra 5 - Elgoibar 1
- **Ohorezko gazteak:**
Mondra 3 - San Martzial 2

• Bigarren mailako gazteak:

- Arrasate 7 - Behobia 0
- **Ohorezko kadeteak:**
Arrasate 3 - Mariño 3
- **Ohorezko infantilak:**
Arrasate 4 - Lengokoak 6

SASKIBALOIA

- **Kadeteak:**
Kenci Arrasate 30 - Nerea Sport 57

Jokatzekoak

ESKUBALOIA

- **Seniorrak:**
Arrasate Almen - Loiola larunbata, 17:30
- **Gazteak:**
Arrasate - Almen Jakion ostirala, 18:30

FUTBOLA

- **Ohorezko gazteak:**
Segura - Mondra
- **Bigarren mailako gazteak:**
Axular - Arrasate

Altzariak
Diseinua
Apainketa
M A ARENAZA

Bizkai, 1 • ARETXABAETA
Tel.: 943 79 08 07

**PUB
HAIZEA**



TTUKUN

Fotokopiak
Liburu josteak
Fotokopiak koloretan
Planoen kopia
Offset-a
Ferrerias, 23 • ARRASATE
Tel.: 943 79 46 62

Asperen pilota jaialdia Uarkapen

22:30ean hasiko da Aspe enpresak antolatu duen pilota jaialdia Uarkapen. Eskuz binakako bi partida jokatu dira, baina estelarrean aldaketa

bat egon da:

Jokin Etxanizen ordez, Goñi II.a arituko da. Horrela, bada, partida hau izango da: Titin III.a Berna, Goñi II.a

Elkororen aurka.

Jaialdiari Muruamendiariaraz-Otxandoren eta Del Rey-Auskin bikoteek ekingo diote.

Beteranorik azkarrenak, mondragoetarrak

Euripean, baina fin aritu ziren herriko korrikalariak Arrasate-Oñati herri-krosean. Beteranoek emaitza bikainak lortu zituzten: Mari Jose Gil emakume beteranoen sailean irabazi zuen eta Jabier Mentxakak gizonezkoetan. Eta, horrez gain, lehen arrasatearren sariak ere eskuratu zituzten. Mari Josek 52'27''tan egin zuen ibilbidea eta Jabier Mentxakak 36'16''tan.

Garibai kaletik irten ziren korrikalariak Portaloitik barik, eta 11,3 kilometroko ibilbidea egin behar izan zuten. Oñatin Diego Gartzia omenaldia



Asier Cuevas eibartarra izan zen azkarrena Arrasate-Oñati herri-krosean.

egin zion Laixan euskara elkarrekin. Asier Cuevas eibartarrak ia errekor berria ezarri zuten:

35'38''ko denbora egin zuten. Bigarren R. Fernandez oñatiarra izan zen.

Gipuzkoako gimnasia erritmiko txapelketa

Alebin eta kadete mailako Gipuzkoako gimnasia erritmiko txapelketa jokatu zen Bergaran pasa den asteburuan. Mondragoetarrek lan polita egin zuten: banaka, esku libreekin eta sokekin aritu ziren eta Marta Etxebarriak, San Viator ikastolako ikasleak, lehen tokia eskuratu zuten. 20,20 puntu lortu zituen. Taldeka, berriz, San Viator ikastetxea hirugarren izan zen 9,45 punturekin. Taldea honako hauek osatu zuten: Maite Otxandiano, Marta Etxebarria, Naiara Zabarte, Maitane Garrido, Amaia Alvez, Olatz Urdagoitia eta Leire Hernandezek.



Kadetetan, bestalde, uztaia eta maza erabili zituzten esku artean gimnastek. Maria Etxebarria (San Viator) izan zen lehenengoa 21,80 punturekin eta Miren Bragado (SFX) bigarren 20,80 punturekin. Maila

honetan taldeka SFX ikastetxea bigarren gelditu zen 9,70 punturekin.

Taldea Janire Bolinaga, Miren Bragado, Edurne Elkoro, Ainhoa Elortza eta Maddalen Balenziagak osatu zuten.



ARRASATE
KIROLAK

Erantzuna badakizu, ekarri osteguna baino lehen Arrasate Pressera.

Hilaren bukaeran irabazleentzako artean zozketa egingo da zuzenean Mondrasport saioan, sari mundiala etxeratzeko.

Aurreko asteko erantzuna: Inurritegi anaiek uztailean Gashembrum 1 eta 2ra isoko dira.

Galdere: Zein kirol taldek antolatuko du ekainean Garagardo jaia Arrasaten?

Erantzuna:
 Izen-abizenak:
 Helbidea: Tel.:

FELIX ETA ALBERTO IÑURRATEGI (MENDIZALEAK)

“Gezur asko esaten da

Hiru kafe ebaki Aretxabale-tako jatetxe bateko terrazan. Eguraldi ederra. “Hauek bai direla oporrak”, diote bi anaia mendizaleek.

Felix eta Alberto Iñurrategik hilabete eskas egingo dute Euskal Herrian. Ekainaren 10ean Himalayarako bidea hartuko dute. Bitartean, hilabeteko atsedena Gellaoko etxean. Hau ere ez da paraje makala.

— Futbol liga amaitu da. Zuek zer: Real, Athletic, Alaves ala Osasuna nahiago?

— A Coruña-ko Deportivo, liga beraiek irabazi dute, ezta?

— Argi dago ez zaretela futbol zaleak, baina beste kirolig egiten duzue mendiaz aparte?

— Bai, etxean mahaiko tenisean egiten dugu.

— Gaia aldatuz, orain

Gellaon bizi zarete. Eskoriatza izan arren, jakina da gella-otarrak atxabaltar izan nahi dutela. Zuen kasuan?

— Gu Eskoriatzan errol-datuta gaude. Arrasaten egiten dugu bizitza eta atxabaltarrak gara.

— Zer pentsatzen duzue egitea Himalayako abentura amaitutakoan?

— Izango da zerbait. Argi dago 40 urtetik gora lanbide honetan ez dugula jarraituko eta ez dugu uste mendian gidari lana egingo dugunik. Oso zaila da jakitea.

— Beharbada komunikabideetan tarte bat izan dezakezue, ezta?

— Tarterik ez dakit dauka-gun, talenturik behintzat, ez.

— Ziur nago ETBn izango duzuela saio bat egiteko aukera. Hor daude J. Larrañaga, G. Andrinua, M. Lejarrera, T. Perurena...

— Zerbait egin genuen, baina ez dut uste aipatzea merezi duenik.

— Hamaika urte pasatu dira hasi zinetenetik. Asko aldatu da mendia?

— Esparru mediatikoak asko aldatu du mendia. Makalun, porteadoreak erabiltzen genituen, eskutitzak oinarrizko kanpalekutik aireportura eramateko. Orain, oster, teknologia berriena erabiltzen da eta zuzeneko irudiak jasoteko aukera dago.

— Ez ote da hau, mendia beste

kirol batzuk bezala espektakulu moduan saltzea?

— Ahalegina egin behar-ko genuke mendi igoerak dokumental moduan saltzeko. Espektakuluen bidetik joz gero erre egingo da kirol hau.

— Beharbada komunikabiderik gabe ez zen posible izango espedizioak finantziaztea.

— Oreka bilatu behar da.

— Zuen kasuan, gainera, mendia lanbidea bihurtu da.

— Egia da afizioa zena ofizio bihurtu dela, baina

“Ahalegina egin behar-ko genuke mendi igoerak dokumental moduan saltzeko”



mendizaleen artean”

horrek ez du aldatu mendian ibiltzeko modua. Gainera, lanbide hau gustokua dugu.

— **Noiz arte?**

— Helburu interesgarriak ditugun bitartean, motibazioa bilatzea oso erraza da. Inportanteena, animoso ibiltzea da. 33 eta 31 urterekin oso gorpuzaldi onean gaude eta helburu asko ditugu oraindik.

— **Inoiz pentsatu duzue banantzea?**

— Mendian oso ondo moldatzen gara. Gainera marketing kontutan ere biok gara eza-

gunak. Oso arraroa gertatuko litzateke orain bakoitzak bere bidetik joatea. Bestalde, oso zaila da mendirako kide edo talde on bat topatzea.

— **Gero eta gehiago dira Himalayara doazenak. Orain 20 urte Zabaletak Everest igo zuenean bestela zen, ezta?**

— Bizitzan izan dugun dezepzio txikitxo bat zera izan da: orain 20 urteko Everesteko Euskal espedizioaz ikuspegi erromantikoa geneukan. Bakarrik joan zirela uste genuen eta oso gogorra egin zitzaizela. Urteak pasatu ahala, oinarri-

ko kanpaleku basean katalanak eta poloniarrek zeudela jakin dugu. Everestera joan ginenean, Zabaletak esan zuen oinarriko kanpalekua erromeria bat zela. Uste dugu gauzak ez direla horrenbeste aldatu.

— **Baina egia da orain mendizaleek marka guztiak hautsi nahi dituzuela?**

— Egia da markak hautsi nahian mendizaleen artean gezur asko esaten direla. Porru galantak sartzen dituzte batzuek. Ez dago aurregailurrik eta ezta tontor zentralik ere. Tontorra tontorra da, punturik

altuena eta puntu honetara helitzen ez denak ez du tontorrik egin, eta kitto!!

— **Elkarrizketa amaitu behar dugu. Suerte G1 eta G2 mendietan eta ea Annapurna aurten egiteko aukera duzuen.**

— Polita izango litzateke hamalau gailur altuenak 2000 urte honetan igotea. Pentsatu beharko da nola egin. Dena den aukera oso gutxi ikusten dugu aurten erronka hau egiteko. Abuztuan ikusiko da.

— **Zorte on eta eskerrik asko!!**

Berriro entzun

Berriro entzun

AUDIFONO DIGITAL BERRIEKIN SOINU DIGITAL GARBIENA EZAGUTZERA GONBIDATZEN ZAITU

● Mikrokanala

la-ia ikustezina

● Intra-Aurikularra

Diskrezio osoa

● Retroaurikularra

Betiko laguntza

DOHAINEKO ETA KONPROMEZU GABEKO ENTZUMEN AZTERKETA ELEKTRONIKOA

URETARAKO TAPOIAK URAREKIN GOZATU!

- Ertsiak
- Eragikorrek
- Zure neurrietara egokituak
- Erosoak

GAES MULTIOPTICAS LARRAÑAGA

Ibargarai, 16 - Tel. 943761575 - BERGARA
 J. Carlos Guerra, 1 - Tel. 943792995 - ARRASATE
 J. M. Barandiaran Enp - Tel. 943889988 - ORDIZIA

GAES

%10aren deskontua audifono berrian, zaharra uzteagatik, eta urte beterako pilak dohainik.

Eta gainera ofari zara garari bat zuretzat.

R.P.S. 164999 zkia.

Komiki Ez Sexisten III. Lehiaketa

Arrasateko Udalak, Emakume, Gazteria eta Euskara Sailen laguntzarekin, Arrasateko Komiki Ez Sexisten III. Lehiaketa antolatu du. Aurten, 27.000 pezeta banatuko dira sari guztien artean.

Lanak 17 x 24 zentimetroko edo neurri bereko formatu bertikalean aurkeztuko dira, eta bitik lau orri bitartera hartu beharko dute. Euskaraz nahiz gaztelaniaz aurkez daitezke lanok. Gaia ere librea da. Zuri-beltzean edo koloretan aurkeztu ahal izango dira.

LANEN AURKEZPENA

Lan bakoitzak lelo edo izen-



Hiba Garai, iazko irabazlea.

buru bat eraman beharko du. Gutunazal itxi batean, egilearen izen-deiturak, NAREN fotokopia eta telefonoa jarri beharko dira. Gutunazalaren kanpoaldean, lanari ipinitako izenburua edo leloa.

Lanok aurkezteko epea uztailaren 21eko 14:00etan amaitzen da. Emakume Sailen eman beharko dira. Sarietako dagokienez, horrela banatuko dira: irabazlearentzat, 90.000 pezeta; Emakume sailaren saria, 60.000; emakume egilearentzat, 60.000; Gazte eta Euskara sailek 30.000 pezetako sari bana emango dute.

Ikasleak Harresin

Datorren domekara arte, Monterrongo margo ikastaroko partaideen talentua egiaztatzeko aukera dugu, Harresi aretoan euren lanak erakusgai daudelako joan den astetik.

Badira 5 urte Amaia Bengoa irakasle bergararraren taldeak Harresi Aretoan erakusten duela. Aurtengoan, hiruzpalau urte daramatzaten ikasleak hartu dute parte nagusiki. Gazteenak 10 urte ditu, eta nagusienak, aldiz, 60 inguru. Akuatela, oleoa eta arkatza dira lanok egiteko erabilitako teknikak. Gaiei dagokienez ere, denetarik dago: gehienak figuratibo antzekoak dira, baina badago margo abstrakturik ere.

Ibilaldia 2000ra!

Aurtengo Ibilaldia, Bizkaian egiten den euskararen aldeko jaialdia, Balmasedan egingo da. Domeka honetan izango da jai.

Euskara elkarte gehienek ekintza honetan parte hartzen dute, horien artean Arrasateko AEDk. Hori dela eta, Mondragoeko euskara

elkartek autobusa antolatu du Balmasedara. Irteera goizeko 9,00etan izango da, Garibai kalean, eta 20:00ak aldera itzuliko dira. Izena AED elkartearen eman beharko da, 1.300 pezetaren truke. Animatu, euskarak merezi du eta. Jai egun osoa izango da.



Ipuin kontaketa

Datorren ostegunean, ekainak 1, Ixabel Agirresarobe ipuin kontalariak emanalditxo bat eskainiko du, Ekin Emakumeak elkartearen eskutik. 18:30ean izango da hitzordua, elkarteak Pablo Urangan duen egoitzan. Helduentzako ipuin sorta bat eskainiko du Ixabelek, giro goxo-goxoan. Sarre-
ra librea eta doan izango da.



URONDO Elektrizitatea

- * Elektragaiak
- * Instalazioak
- * Automatismoak
- * Proiektuak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak

Musakola auzoa, 26. Kataide Industrialdea 5. Pabilioia. 214 posta-kutxa • ARRASATE
Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxa: 943 77 14 76

GRUPO

RK UZ


ARETXABALETA

ARRASATE

Oparia

EROSKETA DOHAIN



Telebista-Bideoa-Soinua-
Banatzaile ofiziala **expert** 


Andra Mari Auzunea, 1 • Tel. / Faxa: 943 79 10 97
ARETXABALETA




Etixerako altzariak-
Diseinua-Dekorazioa

Araba etorbidea 20 • Tel. / Faxa: 943 79 23 51
ARETXABALETA



Banatzaile ofiziala
FAGOR 

Mitarte 3 • Tel. / Faxa: 943 77 04 55
ARETXABALETA



Etixerako altzariak-Diseinua-
Dekorazioa

Araba Etorbidea 5 • Tel. / Faxa: 943 79 41 82
ARRASATE

Zenb. 00000

Zenbaki honekin parte hartuko duzu

Aretxabaletako **Arkauz Altzariaken** (Araba Ibilbidea, 20)

2000.eko uztailaren 1ean eta irailaren 30ean,
arratsaldeko 20:00etan egingo den zozketan.

Zozketa bakoitzeko saridunak DOHAINEKO EROSKETA izango du opari
(500.000 pta.rainoko erosketa).

Erosketaren zenbatekoa boletoan dago zehaztuta.

Erosketaren zenbatekoa:

(gutxieneko erosketa 80.000 pta.takoa)

--	--	--	--	--	--	--	--

pta.

asteko filma



28 días

(28 days). Komedia. EEBB, 1999.
Zuzendaria: Betty Thomas.
Aktoreak: Sandra Bullock, Dominic West, Viggo Mortensen, Elisabeth Perkins.

HARIA

Gwen Cummings idazle alkoholzale gazte bat da. Edozein aitzakia aprobetxatzen du Gwenek gehiegi edateko. Egun batean, alkoholak eramanda, epailearen aurrean aurkeztu behar du, eta honek 28 eguneko errehabilitazio isuna ezartzen dio. Orduan, erabaki bat hartu beharko du Gwenek.

KRITIKA

Alkoholzaletasunak film ugari inspiratu ditu. Zaila da, beraz, originala izatea, baina honako filmak badu meriturik. Batetik, drama barik, komedia da, beltz-beltza, baina komedia. Bestetik, mezu positiboa igorri nahi du: alkoholzalea porrot eginda aurkeztu ordez, bere bizitza berrantolatu nahian agertzen zaigu hemen. Gainera, aktoreek oso lan ona egiten dute eta primeran aukeratu daude.

irakurle eta entzule

diskoak

ARABA EUSKARAZ
 Elkarlanean.



Irratian entzungo zenuen dagoeneko abesti mar txoso eta gustagarri hau. Ibilaldia hementxe dugun arren, audioarrak Araba Euskaraz prestatzen dabilta buru-belarri, eta hona hemen egun horretarako sortu duten doinu alaiak: musika Egoitz Uriartek egin du; letrak, Beñat Mendigurenek, eta horiek kantatzeko boskote paregabea: SAko Juan, Betagarriko Iñaki, Danbako Josu, La Pollako Evaristo eta Alehopeko Amaia. Audioko ikastolako haurrek ikutu jostagarria ipintzen dute.

Abesbatza bitxia, ezta? Bada, mezu ondo ederrak bidaltzen dituzte: "Mugak hautsiz euskaraz, mintzatuz hemen ta han, txikia zainduz zabal dezagun unibertsoan!" Ea bada horiek guztiak ekainean, Laudion, islatzen diren.

liburuak

PUTZ
 450 pta. 48 orrialde
 Bihilabetekaria



"Umore ona eta denborapasa al da lagun hurkari bekatuaren pozoia prestatzea?" Horrela bada, zatoz eta irakur ezazu Putz bihila-
 betekariaren

hirugarren zenbakia. Bero-bero dago, labetik atera berria delako. Arrasaten gaudenez, Mahomari egindako elkarriketa gomendatuko dizuegu, baina ez ahaztu Gastronomía sailean titi-jana. Aurrekoan zakilaren nondik norakoak izan zituzten hizpide putz-kideek, baina orain nesken txanda da: neskei plazerra emateko txanda esan nahi dugu, zer azalera ere mutil eder bat ekarri dute. Nor ote? Putzen duzue erantzuna, beti bezala, ironiaz.

asteburuan zer

kontzertuak

ESTRALURTARRAK
ALA PUNKIAK?



Ingalaterratik datozkigu lau mutikote hauek, parrandarako gogoarekin. Punk taldea, bai, baina ez

edonolako punk taldea; horixe da Peter & the Test Tube Babies. 80. hamarkadatik daude musikagintzan, eta harrezkero ez diote doinu itsaskorrek eta letra zirikatzaileak egiteari utzi. Drogak, inkonformismoa, amodioa, musika, filiak eta

fobiak eta beste hainbat paranoia dituzte abestien letretako gai. Euren azken diskoa, "Alien Pubduction", umorez eta surrealismoz betea datorkigu. Estralurtarrek bahitutako tipo baten istorioa kon-



tatzen du diskoari izena ematen dion kantua, atera kontuak! Euren kontzertuetan, Madonna

edo The Spice Girlsen abestien moldapenak jokatzen dituzte, eta Bergarako Jamen ere horrelakoak ikusi eta entzun ahal izango dira larunbatean. Aitzol L. de Munain, Egoitz Zuazubizkar eta Mikel Etxebeste han izango dira.

kontzertuak

BERGARAKO JAM ETA GO-JAMEKO
 KONTZERTUETARAKO SARRERAK.
 Ekainak 3: Naco Goñi y Los Bluescavidas

Egun bakoitzerako **3** sarrera
 zozketatzen ditugu.

Kontzertuetarako irabazleak gaur gauean Soinuz Blaien.
 Txartelak ekartzeko azken eguna: ASTEAZKENA

Izen-deiturak:

Tel.: Eguna:

FLORENCIO CAMPO (ARRIERITOSEKO DANTZARIA)

“Flamenkoari espresio modu ugari gehitzen dizkiogu”

Zapatu honetan, Maiatza Dantzan programaren barruan, *Arrieritos* taldearen “*Todos los Gatos son Pardos*” flamenko emanaldia izango da Amaia Antzokian. Horren berri jakiteko, taldeko Florencio Camporekin izan gara. Kantabriarra izatez, Madrilen bizi da eta hantxe dihardu dantzari eta koreografo lanetan.

—Nola sortu zen *Arrieritos* konpainia?

—1996an, Pradillo antzerkiak “Flamenkoaren beste begirada” dantza zikloa antolatu zuen, hainbat talderen ikuskariak biltzen zituen, eta sei dantzari eta koreografo elkartu ginen proposamen hori gauzatzeko. Baina, ziklo hura amaitu ondoren, eta izandako harrera ona ikusita, elkarrekin jarraitzea erabaki genuen. “*Todos los Gatos son Pardos*” gure hirugarren ikuskaria da, eta laugarrena prestatzen ari gara dagoeneko.

—Flamenkoa ardatza izanik, beste estilorik ere lantzen duzue, ezta?

—Bai, hala da. Guztiok landu dugu flamenkoa, baina desberdintasunekin: batzuek taula gainean egiten zuten dantza, beste batzuek gaur egungo dantzak jorratzen zituzten; nik, adibidez, espainiar dantza klasikoak ikasi ditut gehienbat. *Arrieritosek* horiek guztiak uztartzen ditu, eta gure ikuskizun guztiak dute gutako bakoitzaren ikutua. Horrez gain, haur abestiak, poesia, antzerkia... ere erabiltzen ditugu. Flamenkoa da gure ardatza, baina espresio molde ugari gehitzen dizkiogu.



—Nolakoa izan da orain arteko ibilbidea?

—Oso ona. Lehen ikuskizuna, “*Arrieritos somos...*” 1996koa da. Hor kolpeak, gitarra, kante jondoa... erabiltzen genituen espresio bide moduan. Flamenkoaren hainbat elementuren arteko topaketa izan zen hura, eta kritika eta publiko arrakasta handia izan genuen. Bigarrena, taldea finkatzeko lana izan zen, eta koreografia ariketa moduan sortu genuen. Horrekin Europako hainbat agertokitan izan gara. Deialdi ahalmen urria dugun arren, bai kritika, bai publikoa, oso ondo portatu dira gurekin.

—Nola deskribatuko zenuke “*Todos los Gatos son Pardos*”?

—Sei kide garenez, oraingoan bakoitzaren estilo pertsonalari tarte handiagoa eskaintzea erabaki dugu. Beraz, ikuskari horretan sei koreografia daude, gauaren gaia abiapuntu hartuz. Hainbat istorio kontantzen ditugu: lo egin nahi ez duen haurarena; bakardadearena; bikote kontuak; gaupasan dabilzanena...

“Deialdi ahalmen urria dugun arren, kritika eta publikoa oso ondo portatu dira”

aste gazte

■ HEZKUNTZA

• Erdi eta Goi Mailako Hezkuntza Zikloetako eskaintza jaso dugu. Hurrengo ikasturtean hezkuntza zikloren bat ikasi nahiz gero, aurrez izena emateko epea: ekainaren 1etik 12ra.

■ EGONALDIAK FAMILIA EUSKALDUNEKIN

• Eusko Jaurlaritzak, urtero legez, euskara lantzeko egonaldiak antolatu ditu, Euskal Herriko familiekin udako hilabeteak igaro eta euskara maila hobetzeko. Epea: ekainak 3.

■ UDAKO IKASTAROAK

• Udako Euskal Unibertsitateak uztailaren zehar Biarritz eta Iruñean egingo diren ikastaroen berri eman du. Izena emateko epea: maiatzaren 15etik ekainaren 16ra.

■ DIRULAGUNTZAK

• Debarroko Udalek deituta, kirol materialak euskaraz sortzeko bekak. Epea: ekainak 1.

• Kanpo merkataritza alorrean prestakuntza egiteko bekak, Eusko Jaurlaritzaren eskutik, unibertsitate ikasketak bukatuta dituztenentzat. Epea: ekainak 3.

• Leonardo da Vinci bekak, Europako enpresatan praktikak egiteko aukera, ikasketen azken urteetan egon, edo ikasketak bukatu berri izanik lan esperientziarik ez dutenei zuzenduta. Epea: uztailak 14.

■ LEHIAKETAK

• Udaleko Gazteria Zerbitzuak urteroko argazki lehiaketak antolatu du. Aurtengo leloa: “Gazteak eta arrazakeria”; zuri-beltzean edo koloretan, gehienez hiru argazki aurkez daitezke. Epea: urriak 11.

Argibideak:
GAZTE ZERBITZUA
☎ 943 77 00 65

Goitb

Goiena Telebista

egunez egun

OSTIRALA, 26

- 13:30 **Albiste aurrerapena.**
- 13:40 **Gatza eta Berakatza.**
Alberto Elorza, Zelai Zabal jatetxeko sukaldaria.
- 13:50 **Guganda** (errepika).
- 20:00/20:30/21:00 **Berriak.**
- 21:30 **Astebete.** Asteko albisterik nabarmenenak.
- 22:00 **Gatza eta Berakatza** (errepika).
- 22:15 **Soinuz Blai** (errepika).

LARUNBATA, 27

- 13:30 Asteko saioen errepika:
Jolasplast, Gatza eta Berakatza, Hamaika Magazin, Mahai ingurua, Guganda, Soinuz Blai, Astebete.

IGANDEA, 28

- 13:30 Asteko saioen errepika:
Jolasplast, Gatza eta Berakatza, Hamaika Magazin, Mahai ingurua, Guganda, Soinuz Blai, Astebete.

ASTELEHENA, 29

- 13:30 **Albiste aurrerapena.**
- 13:40 **Gatza eta Berakatza.**
Igor Ezpeleta, Elizondo jatetxeko sukaldaria.
- 13:50 **Astebete** (errepika).
- 20:00/20:30/21:00 **Berriak.**
- 21:30 **Goienasport.** Arrasate Kirolak Lehiaketaren sari banaketa egingo da, zuzenean.
- 22:00 **Gatza eta Berakatza** (errepika).

ASTEARTEA, 30

- 13:30 **Albiste aurrerapena.**
- 13:40 **Gatza eta Berakatza.**
Bixente Pagoaga, Mitartegarai jatetxeko

sukaldaria.

- 13:50 **Goienasport** (errepika).
- 19:20 **Jolasplast.**
- 20:00/20:30/21:00 **Berriak.**
- 21:30 **Hamaika Magazin.**
Menopausia, bizkarreko masajeak, Paul Klee, Columna lora eta Guatemala.



Fernando Cristobal.

- 22:00 **Gatza eta Berakatza** (errepika).

ASTEAZKENA, 31

- 13:30 **Albiste aurrerapena.**
- 13:40 **Gatza eta Berakatza.**
Eulali Maskiaran, Matikua jatetxeko sukaldaria.
- 13:50 **Hamaika Magazin** (errepika).
- 20:00/20:30/21:00 **Berriak.**
- 21:30 **Herriz herri, zer berri?**
Debagoieneko herriak, Maria Agirrek aurkeztuta.
- 22:15 **Gatza eta Berakatza** (errepika).

OSTEGUNA, 1

- 13:30 **Albiste aurrerapena.**
- 13:40 **Gatza eta Berakatza.**
Kontxi Juantorena, Uxarte jatetxeko sukaldaria.
- 20:00/20:30/21:00 **Berriak.**
- 21:30 **Ekilan.** Alberto Gorritibe-

reak hirugarren sektorea landuko du aste honetan, zerbitzuena alegia.

- 22:00 **Gatza eta Berakatza** (errepika).
- 22:15 **Soinuz Blai.** Miren Gonzalezekin.

OSTIRALA, 2

- 13:30 **Albiste aurrerapena.**
- 13:40 **Gatza eta Berakatza.**
Alberto Elorza, Zelai Zabal jatetxeko sukaldaria.
- 13:50 **Ekilan** (errepika).
- 20:00/20:30/21:00 **Berriak.**
- 21:30 **Astebete.** Asteko albisterik nabarmenenak, Eneko Azkaratek aurkeztua.
- 22:00 **Gatza eta Berakatza** (errepika).
- 22:15 **Soinuz Blai** (errepika).

Gatza eta Berakatza

PLATERAK: Arrainak

Astelehena 29
Atuna bilbotar erara.

Astearte 30
Bakailoa patatekin.

Asteazkena 31
Txipiroiak saltsan.

Osteguna 1
Piper beteak txipiroiekin.

Ostirala 2
Txitxarroa.

HIES BERRIA

Tel.: 943 79 26 99

PEUGEOT
Salmenta eta zerbitzua

IBABE GARAJEA

MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA

Gesalibar auzoa, z/g. Tel.: 943 79 99 61 • ARRASATE

Txitxinpe

Berezitasunak
Kazuelatxoak
Otarateko hotz eta beroak

Arrasate Pasealekua, 33
ARRASATE Tel: 943 79 67 76

Bailara gertu-gertutik

Herriz herri, zer berri? asteazkenean, 21:30

Bailara ezagutzeko aukera eskainiko digu GoiTBk hurrengo astetik aurrera. Herriz herri, zer berri? saio berriak eskainiko digu horretarako aukera.

Saioaren gidaria Maria Agirre izango da eta hiru saio egingo dira.

Asteazkenean adibidez, Aramaio eta Leitz-Gatzagari buruz arituko dira bertako berriemaileekin. Aurreko asteetan herri horietako informazio orokorra eskaini bazaigu, saio hauen helburua herria bera eta bertako bizilagunen ohiturak ezagutzea izango da. Horretarako lehenengo saio honetan GoiTBko kamara bi herri horietara joango dira bertako bitxikiak zuei ekartzeko eta bide batez, hango txokorik izkutuak ezagutarazteko.

Hurrengo saioa ekainaren 7an eskainiko da eta orduan Eskoriatza eta Aretxabalaren txanda izango da.

Ekainaren 21ean, berriz, Arrasate izango da hizpide.

Beraz badakizue. Herriz herri, zer



Maria Agirre

berri? saioak bailara gertuagotik ezagutzeko aukera eskainiko dizue, zuen etxeetatik atara gabe.

Aramaion, aire zabalean



Joan den asteartean, hilak 23, Goiena Telebistako albistegia Aramaion grabatu zen, Udaletxearen aurre-

an. GoiTBk duen unitate ibiltaria erabiliz egin dira aste honetako albistegiak herriz herri. Argazkian Mikel Aran-

zabal Txirritola euskara elkarteko lehendakaria eta Maider Osa albistegiko aurkezlea.

arrasate
irratia



ASTELEHENETIK OSTIRALERA

- 09:00 Albisteak.
- 09:30 Goizoro magazina.
- 11:00 Formula 10.
- 12:00 Zeu be bai.
- 14:30-18:00 Goizeko saioen errepika.

ASTELEHENA

- 20:00 Draxtor.
- 21:00 In Session.

ASTEARTEA

- 20:00 Hi bizi hadi!
- 21:00 Jakiliplost.

ASTEAZKENA

- 20:00 Farandula L.P.
- 21:00 KK2A.

OSTEGUNA

- 20:00 Ostegunero.
- 21:00 Musika.

OSTIRALA

- 20:00 Planning prest!
- 21:00 Kale doinuak.

LARUNBATA

- 10:00 Jakinguraz beteta.
- 11:00 Zoroklasikoak.
- 12:00 Bi zoro ta zu!

Zuzenean parte hartzeko telefonoa: 943 71 17 31.

MARKA ETA MODELOA MATRIK. URTEA EZAUGARRIAK PREZIOA

ALAI GARAJEA PEUGEOT. Urarte, 12 **Bergara** Tel.: 943 76 22 96

Peugeot 106 Long Beach 1.5 Diesel			IK, IZ, KE, LD	*5
Peugeot 206 SR 1.4			IK, IZ, KE, LD, Airbag	*5
Peugeot 206 XT 2.0 HDI			IK, IZ, KE, LD, Airbag, AG	*6
Peugeot 306 2.0 XSI			IK, IZ, KE, LD, Airbag, AG	*7
Peugeot 406 SR TD			IK, IZ, KE, LD, Airbag, AG	*7
Peugeot 406 ST 2.0			IK, IZ, KE, LD, Airbag, AG	*6

AUTOLEYMA. Aitziturri 5. **Bergara.** Tel.: 943 76 09 30

Peugeot 306 Stile Break 1.6				*6
Renault Megane Coupe 1.9 DTI				*7
Renault Clio 1.4				*5
Peugeot 106 Sketch 1.1				*4
Seat Ibiza TDJ				*6
Peugeot 406 Coupe V6				*7
Peugeot 306 XT 1.8 Automatikoa				*6

BERRIA GARAJEA. Amillaga 49 **Bergara** Tel.: 943 76 22 43

Ford Focus 1.6i 16v 5 ate	SS-BG	1999	AG, IZ, KE, LD, IK, 6.000 km.	*6
Honda Concerto 1.5i 16v	BI-CG	1994	AG, IZ, KE, LD, IK, AH	*3
Ford Mondeo R.S SP V6	SS-BG	1999	AH, IE, IK, IZ, KE, KL, LD, LK	*7
Seat Toledo Sport 16v	SS-AL	1991	AG, IE, IK, IZ, KE, LD, LK	*3
Fiat Tipo 1.6 AGT	SS-AK	1991	KE, IZ, LK, LD, IK	*2
Ford Orion 1.6 Ghia	SS-AD	1989	IK, IZ, KE	*1

FIAT KANPAZAR C.B. Bizkaia Etorbidea, z/g **Arrasate** Tel.: 943 79 41 98

Renault Megane	SS-AX	1996	IK, 5 ate, LD, IZ	*5
Fiat Uno	SS-AL	1992	IK, 5 ate	*2
Fiat Uno	VI-K	1988	IK, 3 ate	*1
Peugeot 205	VI-J	1988	IK, 5 ate	*1
Fiat Punto		1999		*4

A: Alerioa AG: Aire girotua AH: Aleaziozko haginak AL: Alarma BA: Balbula anitza ES: Eguzki Sapaia
 IE: Ispilu elektrikoak HT: Hard top IK: Irrati-kaseta IZ: Itxigailu zentralizatua KE: Kristal-jasogailu elektrikoak
 KL: Klimatizagailua LD: Lagunduriko direkzioa LGT: Lau gurpiletako trakzioa LK: Laino-kontrako argiak
 LKA: Laino-kontrako aurreko argiak NT: Narruzko tapizeria SE: Sapai elektrikoak UAT: Urrutiko aginte tresna

*1: 300.000 PTA arte
 *2: 300.000-500.000 PTA
 *3: 500.000-750.000 PTA
 *4: 750.000-1.000.000 PTA

*5: 1.000.000-1.500.000 PTA
 *6: 1.500.000-2.000.000 PTA
 *7: 2.000.000-3.000.000 PTA
 *8: 3.000.000 PTAtik aurrera

DENA AUTO
 Tel.: 943 71 23 91
 943 76 03 97

AUTO DESGUACES BERGARA

 Tel.: 943 76 35 47 (desguazekoa) • 943 79 76 33 (etxekoa)
BIGARREN ESKUKO PIEZAK
PNEUMATIKO BERRIAK ETA ERABILITAKOAK
GRUA ZERBITZUA

PENAKOBA

 Zarugalde, 46 Lizaur arkitektoa, 7
 Tel./Faxa: 943 79 29 93 Tel.: 943 78 05 60
ARRASATE **OÑATI**

MARKA ETA MODELOA	MATRIK.	URTEA	EZAUGARRIAK	PREZIOA
-------------------	---------	-------	-------------	---------

MECA. San Andres, 8 **Arrasate** Tel.: 943 71 21 67

Renault Megane Alize 1.6	B-TX	1998		1.450.000
Renault 5 1.1 Five 3 ate	BI-BT	1993		375.000
Saab 9000 CD 2.3i	M-OH	1993		1.290.000
Citroen AX 1.1	SS-AG	1989		255.000
Jeep Cherokee 2.1 TD	NA-AH	1990		1.050.000
Renault Twingo Pack 2	SS-BF	1999		1.050.000
Opel Vectra 2.0i GL	SS-AL	1992		590.000
Ford Escort 1.6 Atlanta	SS-AS	1994		750.000

OLA TAILERRAK. Olabarrena z/g. **Bergara** Tel.: 943 76 47 74

Opel Tigra 1.4i 16v	<Urtebete	1999	AG, Llantak, 2 airbag, Pintura metalizatua, Hifi	*6
Opel Astra (hainbat)	<Urtebete	1999	AG, ABS, 2 airbag, Hifi, Bolantearen altuera aldagarria	*6,*7
Opel Vectra (hainbat)	<Urtebete	1999	AG, ABS, 2 airbag, Hifi, Pintura metalizatua	*7
Opel Omega 2.5 TD	<Urtebete	1999	Full Equip	*8
Nissan Micra 1.0s 16	3 urte	1997	Llantak, Hifi	*4
Subaru Legacy GX 4WD	8 urte	1992	AG, ABS, Hifi, KE, IZ	*3
Renault 21 1.7 5 ate	9 urte	1991	Hifi	*4
Peugeot 309 1.6	8 urte	1992	Hifi, IZ	*4
Citroen BX TGE	9 urte	1991	Hifi	*1

Auto gehiago ditugu prezio onetan

Kontsultatzeko


REPARACIONES LENIZ, C.B. Aingeru Ibiltokia, 31 **Eskoriatza** Tel.: 943 71 50 61

Peugeot 205 Plus	SS-6795-AI	1990		
Rover 214 SI	SS-7350-AN	1991		
Citroen AX Stilo	SS-8730-AC	1988		

GARAJE MURILLO

Mekanika orokorra

Leizeaga 4 • Bergara
Tel.: 943 76 13 84




SAN MARTIN
KARROZERIAK

Autoaren konponketa orokorrean

San Juan Auzoa: Barrutitxiki pabiloiak, 1
Tel.: 943 76 07 97
20570 BERGARA

Garajeko mandoen
kopiak egiten
ditugu!



TXORNO
Auto-errekabioak

Ibargarai 33, behea. BERGARA
943 76 29 95

AGUSTIN

Automobilaren
karburazio eta
elektronika



Uribarri etorbidea 16.
Arrasate. 943 79 73 58



Garibai Etorbidea, 5
Tel.: 943 79 22 96
ARRASATE

Larringan

GIDARI ESKOLA
ARRASATE ARETXABALETA

Basabe Poligonoa F0-7 eraikuntza
Tel.: 943 79 64 50
ARETXABALETA

DENA AUTO

Tel.: 943 71 23 91
943 76 03 97

DENA AUTO 12. alea. 2000.eko maiatza

ETXEBIZITZAK

1. Saldu

• Etxea salgai, 45 m²koa zentroan. Konponketak egiteko. Tel.: 943 79 81 25. Gauez.

• Ekainean Donostian apartamentua alokagai. Hondartzatik gertu, 3/4 pertsonarendako. Tel.: 943 79 82 47, iluntzean. 943 71 96 29, lanorduetan.

• Etxea salgai Arrasaten. 4 logela, egongela eta berogailua. Tel.: 943 79 80 99, 627 33 33 41.

• Etxebizitza salgai Aramaio kalean. Tel.: 943 79 49 13.

2. Erosi

• Etxe bat erosiko nuke herri erdian, igogailuduna. Tel.: 943 79 81 25. 20:00etatik aurrera.

• Etxebizitza erosi nahi dugu Aramaio edo Aretxabaleta inguruan. Tel.: 629 92 24 48 82.

3. Errentan emateko

• Uztaila eta abuztuan bungalow alokagai Peñiskolan. Tel.: 943 77 05 88.

• Apartamentua alokagai Torrevejan. Guztiz hornituta, hondartzara ondoan. Ekaina eta uztaila. Tel.: 943 78 14 72.

• Zarautzen erdialdean teilatupe igogailuduna alokagai, denboraldi osoan, oso merke. Tel.: 943 13 07 90.

• Apartamentua alokagai Torrevejan. Bi gela 4/6 pertsonarendako, hondartzatik eta igerilekueetatik kilometro eta erdira. Uztaila eta abuztua, hamabostaldia edo hil osoa. San Joan astea 35.000 pta. Tel.: 943 79 53 18.

• Apartamentua alokagai Culleran (Valentzia). Igerilekua, frontoia eta garajea. Hondartzaren ondoan. Uztaila, abuztua eta irailan. Tel.: 943 79 93 86. 20:00etatik aurrera.

• Bungalow alokagai Torrevejan, hondartzatik gertu. Ekaina, abuztua eta iraila. Tel.: 943 79 52 94.

• Karabana alokagai Landetan. 3 litera, ohe banakakoa eta bikoitza, sukalde aparta. Tel.: 946 23 17 96.

4. Errentan hartzeko

• Unibertsitateko ikasle talde batek 3/4 pertsonarendako etxebizitza

ETXEBIZITZAK

1. Saldu
2. Erosi
3. Errentan emateko
4. Errentan hartzeko
5. Etxeak osatzeko
6. Bestelakoak

GARAJEAK

7. Saldu
8. Erosi
9. Errentan emateko
10. Errentan hartzeko
11. Bestelakoak

LOKALAK/ORUBEAK

12. Saldu

13. Erosi

14. Errentan emateko
15. Errentan hartzeko
16. Bestelakoak

LANA

17. Eskaintzak
18. Eskaerak
19. Bestelakoak

IRAKASKUNTZA

20. Eskaintzak
21. Eskaerak
22. Bestelakoak

MOTORRA

23. Saldu

24. Erosi
25. Bestelakoak

DENETARIK

26. Saldu
27. Erosi
28. Trukatu
29. Eman
30. Hartu
31. Galdtu
32. Aurkitu
33. Bestelakoak

HARREMANAK

34. Agurak
35. Kontaktuak
36. Deialdiak
37. Bestelakoak



943 71 25 11

ARRASATE PRESS • Otalora Lizentziatua, 31 • 20.500 (ARRASATE)

Sail honetan agertzen diren iragarkiak dohainekoak dira. Partikularren iragarkiak argitaratzen ditugu bakarrik. Arrasate Press ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik. Astearte eguerdia baino lehen deitu behar da iragarkia jartzeko.

behar du, ahal bada Arrasaten. Tel.: 943 62 34 71, Imanol. 943 79 71 23, Ainhoa E.

• Bikote batek etxebizitza behar du errentan hartzeko. Presazkoa. Tel.: 943 79 67 11.

5. Etxeak osatzeko

• Jendea behar da pisua betetzeko Arrasaten. Tel.: 619 77 50 19.

• Jendea behar da etxebizitza osatzeko San Andresen. Tel.: 649 68 22 25. Gorka, gauez.

• Pertsona bat behar da etxebizitza osatzeko. Tel.: 943 77 15 67.

• Aretxabaletako etxebizitza osatzeko pertsona bat behar da. Tel.: 943 71 99 94. Marta, lanorduetan.

GARAJEAK

9. Errentan emateko

• Erdialdean dagoen garaje itxia alokagai. Tel.: 943 79 01 84. Edurne.

LOKALAK/ORUBEAK

12. Saldu

• Usaetxen garaje itxia salgai. Tel.: 943 77 12 77.

14. Errentan emateko

• Martxan dagoen denda alokagai Aretxabaletan. Tel.: 626 37 93 26.

LANA

17. Eskaintza

• Etxeko lanak egiteko emakume bat eskaintzen da. Arratsalde nahia-go. Tel.: 943 79 11 46 (deitu 20:30etatik aurrera, baita igande eta larunbatetan ere).

• Klinika auxiliarra, gaixok eta pertsona helduak zaintzeko prest, etxean edo erietxean. Esperientziaduna. Etxeko lanak egiteko prest. Tel.: 943 79 09 31

18. Eskaerak

• Taberna lanetarako eta garbiketarako pertsona bat behar da. Tel.: 945 44 50 86.

• Sukaldaria behar da jatetxe batean lan egiteko. Tel.: 943 71 51 23.

• Mutil edo neska bat behar da ile apaindegitako. Oso premiazkoa. Tel.: 943 79 94 39.

• Pertsona bat behar da merkatuan lan egiteko. Tel.: 619 21 91 72.

• 25 eta 40 urte bitarteko neska edo mutil dinamikoa behar da. Finantza ezagutza eta heziketa enpresariala duena. Interesatuak bidali curriculum argazkiarekin, Arrasateko, 54 posta-kutxatilara.

• Kafetegri baten barrarako zerbitzaria behar da. Tel.: 619 47 99 24.

• Zerbitzaria behar da San Andresko taberna batean egunean 3/4 ordu lan egiteko. Tel.: 943 79 57 10.

• Jatetxe batek zerbitzariak eta banatzaileak behar ditu. Tel.: 943 79 45 64.

• Neska edo emakumea behar da umea zaintzeko. Tel.: 943 77 00 19.

• Pertsona bat behar da asteburutan tabernan aritzeko. Tel.: 945 44 50 95.

• Neska edo emakumea behar da haurrak zaintzeko. Tel.: 943 77 04 31

IRAKASKUNTZA

20. Eskaintzak

• Ingeleseko eskola partikularrak ematen ditut, maila guztiak. Tel.: 943 77 08 69.

• DBHko eskola partikularrak ematen dira. Tel.: 943 79 40 57. Ane.

• Matematikako eskolak ematen dira. Esperientziadun irakaslea. Tel.: 616 55 03 18.

• Esperientziadun filologoak euskarazko eskolak ematen ditu. Euskalduna, mintza praktika, alfabetatze, EGA. Talde txikiekin eta merke. Tel.: 630 71 35 83.

21. Eskaerak

• 1. batxilergoko ikasle batek ekonomia eskolak jasoko litzuzke. Tel.: 943 79 98 07.

• DBHko 4. mailako eskolak emateko pertsona bat behar da. 943 79 57 31 (18:00etatik aurrera).

MOTORRA

23. Saldu

- Suzuki SK.50 ziklomotorea salgai. Oso egoera onean. 100.000 pta. Tel.: 616 15 63 73.
- Renault 11 salgai. SS-AB (75.000 pta) Tel.: 943 71 54 59.
- Gas gas Trialeko motorra salgai. 250 cc. 92koa. Tel.: 943 79 78 36. Unai.
- Peugeot 309 salgai. Lau ate, SS-AF matrikula. 170.000 pta. Tel.: 670 42 07 07.
- Motorra salgai, Suzuki GS-500 E. Karenatua eta faro bikoitza, 25.000 km. Asegurua 2001,eko maiatzera arte, extrak eta oso egoera onean. Tel.: 943 79 59 71. Mikel.
- R5 autoa salgai. SS - T, egoera onean. Tel.: 943 79 11 99.
- Clio 16v salgai, 80.000 km. 93. urtekoa, estrak. Tel.: 606 76 50 29.
- Fiat Uno autoa salgai, VI - L, merke eta oso egoera onean. Tel.: 943 77 10 59.
- Vespino NLX ia berria salgai. Merkea. Tel.: 619 65 40 69.

• Ford Escort familiarra salgai, 16 balbula. SS-BB. Tel.: 943 79 91 27.

DENETARIK

26. Saldu

- Bañaresko kanpinean mobilona salgai. Guztiz ekipatura eta bista ederrarekin. Tel.: 656 74 83 37.
- PEAR bateria salgai. Egoera onean. Tel.: 666 55 08 10 / 94 475 72 34. Mikel.
- Taberna-jatetxea salgai edo alokagai Aretxabaletan. 100 otordu inguru eguneko. Prezio interesgarria. Tel.: 943 79 20 45.
- Karabana alokagai. Hiru literaduna, ohe txiki eta handi bana (bikoitza). Sukaldean kanpoan frigorifiko handiarekin. Ekaina, uztaila eta abuzturako. Tel.: 946 23 17 96. Itziar edo Mertxe.
- Karro denda alemana salgai, egoera eta prezio onean. Tel.: 943 79 73 04.
- Artzain txakurrak salgai. Tel.: 656 72 85 00.
- Ezkonlogela salgai. 1,35 metroko ohea, 2 mahai txiki eta 2 m. luze

den armairua. Marroi ilunak, oso egoera onean. Laminazko somierra doan. 50.000 pta. negoziagarriak. Tel.: 943 79 41 31.

• Philips / Whirpool No Frost Plus, 1,68 alturako hozkailua salgai. la berria. Tel.: 943 79 34 16.

• AEG OKO lavamat 561 garbigailua salgai. Tel.: 943 79 34 16.

• Gazteentzako logela salgai, ohe habia, 1,70ko armairua, apala, mahaia etab. Tel.: 943 79 34 16.

• Piano bat daukat saltzeko, Zimmerman markakoa, berri-berria. Tel.: 943 79 48 10.

27. Erosi

• Billar bat erosiko nuke. Ez dadila oso garestia izan. Tel.: 943 77 17 58. Josu.

31. Galdu

• Urte bateko umearen jaka bake-roa galdu zitzaidan San Andresen. Tel.: 943 79 48 34.

• Maiatzaren 16an, asteartea, arratsaldean musika liburuz beteriko

motxila beltz bat galdu nuen Arrasate pasealekuan. Aurkitu baduzu, deitu 943 77 07 41 telefonora.

33. Bestelakoak

• Martxan dagoen garbitasun enpresa saltzen dut, furgoneta, makinaria eta guzti, oso modu onean, negozioaz arduratu ezin naizelako. Hileko irabazia 450.000 - 500.000 pta. Tel.:629 40 47 82.

• Ziklomotor zahar baten fitxa teknikoa behar dut. Tel.: 943 77 08 02. Joxean.

32. Aurkitu

• Udalara bidean giltza batzuk agertu dira. Jabeak Larrinetxe tabernan jaso ditzake. Tel.: 943 79 22 15.

• San Andresen giltza mordoxka duen kremaileradun kartera gorria aurkitu dut. Udaltzaingoa dituzu. Tel.: 943 79 14 39.

• Urrezko pultsera aurkitu dut Munnarreko parkean, zurea bada deitu 943 79 90 94 telefonora.

• San Andresen urrezko kate bat aurkitu dut. Tel.: 943 79 04 28.

Orekatik edertasuna sortzen da

Gorputz eta aurpegirako tratamenduak

- Presoterapia
- Hidromasajea
- Ultrasoinuak
- OSTAR
- Antiarrugas
- Termosauna

Eskatu aurrekontua konpromesurik gabe.

Tratamendu medikuak

- Dieta pertsonalizatuak
- Mesoterapia
- Liposaketak
- Laser:
 - Depilazioak
 - Lesio baskularrak (barizeak...)
 - Pigmentazio lesioak (orbanak...)

Solariuma: zutikakoa eta etzandakoa

Dutxa eta toailarekin: 10 saio + 1 doan = 9.000 pta (Bazkideek %10eko beherapena)

Bixente Ferrer, 1-Arrasate
Tel : 943 79 52 17





San Juan de Dios ospitalean gizonezkoak bakarrik ibiltzen ziren lehen lanean; emakumeak, berriz, Aita Mennin. Ordukoa da argazki hau. Ikusten duzuen moduan, San Juan de Dios-ekoak dira geurera ekarri ditugun langileak. Denetariko ogibideak betetzen zituzten: igel-

tserotza, arotz lanak, sukaldaritza, garbiketak...

Ospitalearen ardura, berriz, fraideek zeukaten. Orduan orain baino ugariagoak ziren; 20 bat egoten omen ziren Santa Ageda aldean. Erizain eta erizain laguntzaile lanak betetzen zituzten.

Argazkiko gizonak Aramaiotik, Garagartzatik eta San-

ta Agedatik joaten ziren lanera San Juan de Dios ospitalera. Goitik hasita ezkerretik eskumara, honakoak dira: Joxe Agirre, Pablo Mendarozketa, Damaso Zarraoa, Feliciano Martinez, Eustakio Errasti, hurrengoa ezzaguna da, Benito Ormaetxea eta Facundo Arana.

Makurtuta daudenak, ostera, hauexek dira, ezkerretik

hasita: Francisco Arana, Gregorio Ibañez, Antonio Barrutia, Rufino Agirre, Gregorio Ozaeta, Lucio Ayastui eta Jose Cruz Uribarren.

*Argazkia eta berriemailea:
Joxe Agirre*



LASAGABASTER

Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE • Tel.: 943 79 27 27 / 943 79 13 55

Zure ilusioak errealitate bihurtzen direnean

SUKALDE ERAKUSKETA Udala Plaza, z/g • ARRASATE • Tel.: 943 79 00 43
BAINU ERAKUSKETA Zarugalde kalea, 52 • ARRASATE • Tel.: 943 79 99 42

iKKER

SUKALDE ETA BAINU ALTZARIAK

FAGOR






ALDIBI AUTOAK, S.A.



Nissan Almera berria

Ibilbideaz goza ezazu



Aldi **bi**

Zigarrola kalea, 1
20500 ARRASATE
Tel.: 943 71 20 02
Faxa: 943 79 65 65
e-maila: aldibi@nortekar.com

Olaso kalea,
20870 ELGOIBAR
Tel.: 943 74 20
Faxa: 943 75 35
e-maila: aldibielgoibar@nortekar.com